IDATZ & MINTZ

58

Aurkibidea: Patxi Zubizarreta: BASO BAT OPARI. **3**. Iratxe Ormatza Imatz: MADALENEN HARIAK. **13**. Amaia Iturbide: BIDEZIDOR KROMATIKOAK. **16**. Jabier Kalzakorta: BETELU ETA LEKUNBERRIKO ERREGEN BEZPERAKO KOPLA ZAHARRAK. **18**. Eneko Urizar: POEMAK. **26**. Lourdes Unzueta: TULIPAN-ZURIAK. **28**. Xabier Boveda: ALFONSINA STORNI, BAZOAZ ZURE BAKARDADEAN. **30**. Sebastian Gartzia Trujillo: AGUSTIN KARDABERAZ, BIZKAIERAZ ERE IDATZI ZUEN GIPUZKOAR IDAZLEA. **37**. Iturriko: JESU KRISTOREN EBANJELIOA. *TESTAMENTU BARRIAREN ITZULPEN BARRIA BIZKAI EUSKERAZ*. **43**.

ARGITARATZAILEA
Labayru Fundazioa
Literatura saila

IDAZKARITZA BATZORDEA
Adolfo Arejita
Asier Astigarraga
Jesus A. Etxezarraga
Jabier Kalzakorta
Miren Agur Meabe
Lourdes Unzueta
Andres Urrutia

ARDURADUNA
Igone Etxebarria

Argitalpen hau Bilbon irarri da 2015eko bagilean, Gestingraf, S.A.L. etxean, eta Ikur Fotokonposaketak taiutu dau Times letra moldeaz. Azaleko irudia Luis Manuel Peña Cerro, gainerakoak «Erté graphics», «Big book of silhouettes» eta «3.800 early advertising cuts» liburuetatik atera izan dira.

LabayruFundazioa

bbk

PATXI ZUBIZARRETA

Baso bat opari

Ongi etorri paradisura…!

Bai, irudikatu zure gustuko paradisuan zaudela, itxi begiak hala nahi baldin baduzu. Izan daiteke oasi bat, izan daiteke lorategi bat, baratze bat; zuk nahi duzun tokia izan daiteke, zuk desio bezalakoxea… baldin eta toki paradisiakoa bada.

Baina egin kontu zure Eden horren atarian argitasunezko izaki bat dagoela, aingeru bat hala nahi izatera, eta, zuri zeuri zuzendurik, atezain horrek hamar bertute eskaini dizkizula aukeran, eta paradisura sartu ahal izateko bat hautatzeko eskatu dizula, bertute bat, dohain bat, alegia.

Entzun arretaz: serenitatea, umorea, sendotasuna, maitasuna, umiltasuna, sakrifizioa, moderazioa, sormena, malgutasuna eta sentsualitatea. Bertute horietako bat aukeratu, eta orain gogoratu zure hitzaren lehen letra, aurreneko letra horixe izango baituzu paradisura sartzeko giltza eta gako: letra… horixe.

Eta paradisuko atean, eta atearen sarrailan letra hori sarturik, bat-batean, atari-atarian, hara non zuhaitz miresgarri bat agertu zaizun: fruta arbola paregabea. Paradisukoa izaki, adarretan hamaika fruta eder dauzka, hamaika fruitu guri, haragitsu, kasik lizun. Egizu ahalegina, imajinatu zuhaitza… gainezka… ezin oparoago…

Oroitu orain arestiko zure letra, bertutearen lehen letra, ea zure gustuko fruta edo fruitu batean dagoen. Berdin zaigu non: izenaren erdian, hasieran edo amaieran. Zuk horixe aukeratuko duzu, horixe eskuratuko, zure letraren fruitua. Entzun arretaz: gerezia, laranja, anana, granada, kiwia, masusta, datila, platanoa, kokoa eta papaia. Aurkitu al duzu zure fruitua?

Hartu orain fruta arbolatik ale bat, laztandu ezazu, eraman zeure begien aurrera, hurbildu sudurrera, eta usaindu… Sartu orain ahora, dastatu…, bete zaitez masustaren kolorearekin, masustaren lurrinarekin, masustaren ahogozoarekin. Eta, orain bai, sartu paradisura. Zure paradisura…

Eta paradisua… pintore batentzat kobazulo bat izan daiteke. Antzinako gizakiak bizi izandako kobazulo bat. Antzinako gizakiek margotutako haitzulo bat. Iraganerako atea. Eta eman dezagun pintore batek egun osoa kobazulo baten atarian eman duela, egun osoa pintatzen. Baina hotzikara batek zeharkatu du orain, ilunabarrean, iluna sartzen ari delako eta, dena jasota, etxera itzuli beharra daukalako. Hain azkar pasa da guztia…

Mississippi ibaiaren ingurumarian bada intsektu mota bat, larba egoeran urtebete eman ostean, egun bakar, egun bereko eklosioan batera ernetzen dena; 365 egunetan zain egon eta gero, 24 orduko epean, milaka, miloika, mila-miloika intsektu batera jaio, hegaldatu, ugaldu, eta hil egiten dira. Doppler rada-

rrak jasotako une horren imajinak, lore multikolore baten itxura du. Masustez betea… Egun bereko, egun bakarreko bizialdia duten intsektu hauei 'Efimera' esaten zaie, eta efimera sentitzen da pintorea ere: Lurraren historia 24 ordura laburbilduko bagenu, gizateriaren existentzia doi-doia minutu erdira mugatuko litzateke. Hain azkar pasa da guztia…

Baina ba ote dago antzik pintore horren eta, esate batera, orain dela 20.000 urte haitzulo horrexetan bizi izan ziren gizon-emakumeen artean. Ba ote dago aspaldian bezalako gauzarik? Azken batean, gizakia zenbateraino aldatu da denboraren poderioz? Gugandik horren desberdin ote? Auzi ustez zail eta konplexu hau ekuazio xume baten bitartez argitu zuen Atxagak:

$$A - B = X$$

A gaur egungo gizaki batek —haitzuloaren atarian eserita dagoenak, esaterako— gorputzean, buruan, begietan, bihotzean… dauzkan gauzen zerrenda litzateke. **B**, ostera, orain dela 20.000 urteko gizakumeek gorputzean, buruan, begietan, bihotzean… eduki ezin zuten guztia.

A: *zamarra, jertsea, alkandora, jeansak, Camper zapata parea,* azpiko arropa, kartera, *nortasun agiria, autoko giltzak,* eguzkitarako betaurrekoak, etxe bat, tximinia, *kea, zerua…,* hegazkin baten zerrenda, basoak, ilargi laurden horizta, mendiak, motozerra baten zarata, isiltasuna motozerra gelditzean, piztia baten intziria isiltasunean, neguko haize hotza, marrazki bat egiteko gogoa, bospasei inurri harri koxkor baten gainean, zigarrokinaren mutur belztu eta zanpatua bospasei inurriren alboan…

B: *zamarra, jertsea, alkandora, jeansak, Camper zapata parea,* azpiko arropa, kartera, *nortasun agiria, autoko giltzak…,* eguzkitarako betaurrekoak, etxe bat, tximinia, hegazkin baten zerrenda, motozerra baten zarata, zigarrokinaren mutur belztu eta zanpatua bospasei inurriren alboan…

Hala bada, **A**-ri **B** kendu, eta horra **X**, hona hemen emaitza:

X: kea, zerua, basoak, ilargi laurden horizta, mendiak, isiltasuna, piztia baten intziria isiltasunean, neguko haize hotza, marrazki bat egiteko gogoa, bospasei inurri harri koxkor baten gainean.

Ekuazioak argi erakusten digu hamar gauza berdinek osatzen dutela emaitza eta, beraz, hamar gauza horiexek lotzen gaituztela kobazuloan behinola bizi izan ziren gizon-emakumeekin. Baina Bernardo Atxagak bigarren galdera bat ere pausatu zuen, galdera literarioa eta guztiz pertinentea, hau da: hamar gauza horien artean zein dira ikusezin? Erantzuna, oraingoan, esanguratsua bezain erraza dugu: isiltasuna, piztia baten intziria isiltasunean, neguko haize hotza eta marrazki bat egiteko gogoa.

Idazlearen arabera, denbora gorabehera, lau osagai horiexek berdintzen eta lotzen gaituzte, lau ezaugarri horiexek elkartzen.

1. Isiltasuna

Kantu zaharrek, baladek, ilunabarrak eragiten duten nostalgia bertsua sentitu du pintoreak: joan, doakion unearen nostalgia. Badoa eguna eta mundu bat ere joan zela sentitzen du, isilean geratu den mundu bat, isilarazi, hondatu, desenkantatu egin duguna.

Pintoreak benetan gogoko du oraingo isiltasun hau, baina batzuetan beldurtu ere egiten da, eta iruditzen zaio ez dakigula isiltasuna nola habitatu: Pirinio katalaneko herrixka batean, herritarrek gobernuari eskari bitxia egin zioten behin: kanpaiek orduetan eta erdietan ez ezik, laurdenetan ere jotzea eskatu zuten. Hain bakarrik ez sentitzeko. Orbaitzetako amona batek ere eskola ez ixtea desio zuen, atsedenaldietako haurren zarataren faltan babesgabe geratuko zirelako.



Esaera eskandinaviar baten esanetan, batzuk oilarrak esnatzen ditu, bestetzuk isiltasunak… Hala ere, John Bergerrek isiltasun aro bat eskatzen du, eta aldarrikatzen: hitzek lehengo esanahia, berezkoa, berreskuratu dezaten, suspertu eta indarberritu daitezen, benetako komunikazioa lortu dezagun.

20.000 urte asko dira, izan, eta teknologikoki alde ikaragarria dago, egon, orduko eta gaurko gizakion artean. Hala bada, gaur egun jasangaitza zaigu hutsa, eramanezina baretasuna, isiltasuna; adituek ikertua dute 30 segunduoro ateratzen dugula sakelako telefonoa, edota posta elektronikoa aztertzen… kanpaia joka dabiltzan tximinoen antzera, nola-halako mezurik jaso ote dugun ziurtatzearren. Gazteen artean, arreta faltaren sindromea ere aipatzen hasiak dira.

Alabaina, alde ikaragarria egon arren, kultura agrafoetan ere gizakiek komunikatzeko behar berbera zuten. Nahiz eta mezuak oso gutxitan iritsi. Nahiz eta, orduan, mezuak objektuen bitartez etortzen ziren. Baina orduan gauza bakoitzak zuen bere esanahia. Hona, esate batera, zorro bateko gauzakiak; hona, haien esangura isila:

Belar izpiak: zurbil nago zuganako maitasunez.
Masustak: gorritu egiten naiz zutaz pentsatzean.
Datil ihartuak: ihartuta geratu naiz, fruitu hau bezalaxe.

Ikatz puskak: nire bihotza sutan dago amodio minez.

Loreak: ederra zara.

Azukre koxkorrak: gozoa zara.

Harri txintxarrak: zu gabe, ibiltzeko arazoak izango ditut.

Hegazti baten lumak: hegoak banitu, hegan joango nintzateke zuregana.

Intxaurrak: zeurea naiz.

Batzuetan giroak, alkoholak bideratu dezake komunikazioa: ardoa beherago, egia gorago… Behin batez, esate baterako, bi marinel Galizia edo Lisboako taberna zuloren batean elkartu ziren. Zerbezari zerbeza, hitzari hitz, gau osoa eman zuten beren barrena askatzen, eta gau osoan zehar beren buruari ere isildutako kontuak azaldu zizkioten elkarri. Batak besteari, den-dena jakinarazi zioten ustekabeko solaskide arrotzari. Sekreturik sekretuenak. Sekreturik isilenak…

2. Piztia baten intziria isiltasunean

Bi marineletako bat Belemeko museo kartografikoan egona zen, Lisboan, jadanik itsasoaren antza duen Tajo ibaiaren bazterrean, eta besteari kontatu zion XVI. mendeko mapa batean, munduko orduko eremu ezezaguna edo *terra incognita* non hasten den seinalatzeko, honako oharra ageri zela: «*De aqui para diante só ha dragões*». Beste marinelak ere bazuen dragoien berri: itsasokoak, bere baitakoak… Eta Chestertonen esana oroitarazi zion: «Herensugeak, dragoiak, egon, geure baitan daude; literaturak eskaintzen digu zalduna».

Berriketan aurrera, marineletako batek kontatu zuen, XIX. mende amaieran, New Yorkera etorkizun minez joandako etorkin saldoen artean, noizbait emakume bat transatlantikotik Ellis *island*-en jaitsi, eta garrasika hasi zela, marrumaka kasik: barneko piztia mintzo zitzaion, antza. Baina portuko jende artean inortxok eBerriketan aurrera, marineletako batek kontatu zuen, XIX. mende amaieran, New Yorkera etorkizun minez joandako etorkin saldoen artean, noizbait emakume bat transatlantikotik Ellis island-en jaitsi, eta garrasika hasi zela, marrumaka kasik: barneko piztia mintzo zitzaion, antza. Baina portuko jende artean inortxok ere ez baitzion ezer ulertzen eta negarrez hipaka jarraitzen baitzuen, eroa zelakoan, poliziak eskale eta mozkorrentzako aterpetxe batera eraman zuen.

New Yorken ere, baina gaur egun, hainbat emakumek oihu egingo lukete oinetako behatz ttikiak mozterakoan, izan ere gisa horretan inon diren zapatarik estuenak jantzi baititzakete. Baina anestesiak oinazea deusezten die, garrasiak isilarazten. 'Moda amodioarekin nahasia', pentsatu du pintoreak, hain zuzen ere itzalak koadroko forma eta koloreekin nahasten hasi zaizkion honetan, ametsak gauaren eldarnioekin, edertasuna minarekin, amodio minarekin…

Francisco Javier Irazoki lesakarrak kontatu zigun, haur denboran, amak haurra galdu zuela erditzean, anaia aingerutan hil egin zitzaiola eta, beraz, poeta bakarrik geratu zela. Aitak, orduan, hilobi gisako bat prestatu zuen baserri alboko pikondo baten azpian, bospasei inurriren alboan; eta amonak hantxe lurperatu zuen haurra, zapata kutxatxo batean. Poeta pikondo horretara igotzen zen, fruituak noiz helduko. Eta uda amaieran eta udazken hasieran, pikuak heldutakoan, astiro jaten omen zuen fruitua. Pipitak anaiaren hitzak ziren, eta astiro mastekatzen zituen, anaia hilak lur barnetik bidalitako hitzez jabetzeko: pikuak anaiaren mezuak ziren, pipitak anaiaren intziria ziren, pipitak paradisurako eta infernurako giltza ziren. Poetak Los hombres intermitentes liburu autobiografikoan kontatu zigun pasadizoa, Paristik… literaturak, batzuetan, zalduna eskaintzen digulako.



Eta Irazoki poetak idazten jarraitzen du, baina Wittgenstein filosofoa, hizkuntzaren hutsaltasunaz eta nahasgarritasunaz jabeturik, monasterio batera erretiratu zen, isiltasunean lorazain izatera. Pentsalaria hitzik gabeko doinuak txistukatzen aparta omen zen. Paul anaia pianistak, ostera, nahiz eta I. Mundu Gerran eskuineko eskua galdu, komunikatzeko eta jotzeko beharra sentitzen zuen. Hala bada, Ravel, Strauss edo Procofiev bezalako musikari lagunengana jo zuen, pianoan ezker eskuaz jotzeko obrak idatz zitzaten.

Alabaina, zenbait intziriri, zenbait garrasiri entzungor egiten diogu. Beharbada urrun sentitzen ditugulako urrun daude. Urruneko garrasiak lehertzen baitira Parisen edo Kopenhagen, Sirian edo Mediterraneoan…

Pintoreak ere, haitzulo kanpoaldean, mendiaren bestaldean sartzen ari den eguzkiari begira, oihu egingo luke. Azken batean, bakarrik dago. Ustez. Agian lasaitua hartuko luke. Inor ez litzateke konturatuko. Sentitzen ari den une honen beraren nostalgia asaskatzeko. Horren ordez, baina, xuxurla batean, nekazarien agurra berritu du: Eguzkia badoa bere amagana, bihar etorriko da denbora ona bada. Ama, Lurra dugu…

3. Neguko haize hotza

Negua ez da urtaro huts. Mark Twainek esan zuen bere bizitzako negurik gogorrena uda batez jasan zuela, San Frantziskon. Nik ere, aitor dut nire bizitzako negurik gorrienetako bat iaz nozitu nuela, abuztuan, Marrakexen, 50 gradutan. Eta Casablancan.

Alabaina, batzuetan negua urtaroekin bat dator eta iluntasuna du ezaugarri. Eta hotza. Kopenhagen, esate batera, Frihaven portuko kafetegietako terrazetan, eserlekuetan manta bat egon ohi da, bezeroek hura magalean zabaldu, eta kafea hartu edo irakurri bitartean goxoago egon daitezen. Bestalde, hiritar bakartiak etxetik lantokira abiatzen direlarik, sukaldean edo egongelan lanparatxo bat pizturik uzteko usadioa dute; hartara, lantokitik kale ilun eta izoztuetan itzultzean, etxeko leihoan argi delikatua ikusi, eta norbait zain dutela imajinatzen baitute. Zain dutela norbait…

Pintorea beharbada horrexegatik gogoratu da, lehen Efimerekin bezala, *Monarka* izeneko tximeletekin orain. Alabaina, intsektu hauek ez dute egun bakar bateko biziraupena. Are gehiago: abuztua azkenetan delarik, hain zuzen ere neguko haize hotzaren beldur, Kanada eta Estatu Batuetatik, hegaldi luzean, sail koloretsuetan Mexikoraino joaten dira epeltasun bila. Baliteke literaturak zalduna edo, bes-



terik gabe, kontsolamendu apur bat, epeltasun doi bat eskaintzea. Manta batena bezalakoxea. Hala nola Gustavo Martin Garzoren ipuin moldatu honetan:

«Maistra gaztea Obabako auzunerik urrunenera bidali zuten. Dena ongi hasi zen, baina, negua kukuka hasi zelarik, haurrek eskolara joateari utzi zioten: aurrena batek, hurrena bik, eta, azkena, kasik guztiek. Bazirudien enaren gisara desagertu zirela. Eta, haurrekin batera, helduak. Bien bitartean, maistrak egurgin bat ezagutu zuen. Eta mutilak ez baitzuen ez irakurtzen ez idazten, neska prest agertu zen hari ikasten laguntzeko. Egia esatera, egurginarekin igarotzen zituen uneak ziren bihotz altxagarri gertatzen zitzaizkion bakarrak. Eta bakanak. Etxeko atean agertzen zitzaion bakoitzean, udazkeneko azken hostoak nola, halatsu hasten zen dardaran. Haren hurbiltasunarekin, haren besoan itsasontzi baten tatuaiari antzematen ziolarik, nahas-mahas ikusten zituen letrak eta lerroak. Eta eskolak amaitzen zirelarik, maistra gaztea biluztu egiten zen ispiluzko ateak zituen armairuaren aurrean, eta zenbait gautan, oheratu ere, larrugorritan oheratzen zen, eta tatuaia hura ametsetaraino sartzen zitzaion.

»Gau batez, herrian inor gutxi geratzen zela, egurgina ezustean etorri zitzaion. Kopeta ilundurik, neskari esan zion: "Zatoz nirekin". Neskak, ostera, hori beste desiorik ez izan arren, ezezkoarekin erantzun zion. Eta harrekeroztik egurgina ez zen berriro agertu, eta gainerako haur eta helduak bezalaxe desagertu zen. Ordurako, eskolara hiru haur besterik ez ziren joaten, eta, halako batean, haietako batek ere huts egin zuen. Maistra, erabakior, ikasle haren etxera joan da, jo du etxeko aldaba, baina inork zabaltzen ez. Eta, alde egitekotan dela, korta aldetik zerbait entzun du, arnasbehar sakon bat. Eta etxera sartu da eta, begiak iluntasunera doitu zaizkiolarik, ahoa bete hortz geratu da: ganbarako habeetatik dilindan, bi zaku handi eta lirdingatsu zeuden, eta inondik ere giza gorputzak biltzen zituzten, eta gorputz haiek bizirik zeuden, izan ere haiengandik ateratzen baitzen arnasketa asaldagarri hura.

»Maistra gaztea deabruak harturik irten zen eta, etxean giltzapeturik zegoela, atea jo zuten. Espero zezakeen egurgina ez, baina alboko etxeko atsoa agertu zitzaion. Eta, mahaira eseri zirelarik, maistrari jakinarazi zion auzune estrainioa zela hura, beharbada herritarrek hibernatzen zuten munduko toki bakarra. Neguko loaldirako halako zorro handiak prestatzen zituzten eta, negua etortzearekin batera, haietan biltzen ziren: noiz bakarrean, noiz elkarrekin. Eta gorputzek isurtzen zuten izerdi likatsuan egoten ziren harik eta udaberria etorri arte. Horra herria hustutzearen zergatia.

»Maistra gazteak orduan ulertu zuen egurgina zertarako joan zitzaion gau min hartan, negualdia halako zaku batean igaro zezaten proposatzera, biak bakarrik punpeka eta arnaska ari zen barrunbe gozo hartan, elkarri itsatsirik. Eta, zorigaitzez, bazekien horixe zela munduan gehien desio zuena eta, halaber, beranduegi zela».

4. Marrazki bat egiteko gogoa

Eguna eta orduak nola zahartzen ari diren ikusirik, pintorea ere harria baino geldiago dago. Egunero saiatuagatik, urbean nekeza zaio ilunabarraren hunkidura hau bete-betean sentitzea. Mindura hau.

Inondik ere halakoxe hotzikara batek hartu zuen erizain bat, XX. mende hasieran, New Yorkeko ospitale psikiatriko batera lan egitera joan, eta, gela batean, emakume ximel bat ikusi zuenean. Sokaz kateatua, emakumeak tarteka garrasi eta intziri egiten baitzuen, erizainak zerbait ulertu, harengana hurreratu, eta *Ellis island*-eko portuko garrasi eta hitz berberak entzun zituen: 'Nire alaba, nire alaba galdu dut! Jainkoarren, norbaitek lagunduko al dit

alaba bilatzen?'. Hogeita hamar bat urte ziren Ameriketara alabarekin joan, lehorreratzean hura jendetzaren erdian galdu, eta garrasi batean hasi zela. Hogeita hamar bat urte ziren, izan; baina, orduan, inortxo ere ez inguruan haren hizkuntza ulertzeko gai. Eta kobazulo atariko pintoreak pentsatu du agian Edvard Munch halako pasadizo batean oinarritu zela *Oihua* izeneko koadroa sortzeko. Eta galdera sortu zaio kobazuloko pintoreen lanaz, nondik eta nola sortu zitzaien marrazteko gogoa, aspaldi handian, duela 20.000 urte baino gehiago.

Inondik ere halakoxe harridurak hartu zituen bi marinelak ere, Lisboako taberna zulotik argitara irten, dena kontatutakoan elkar agurtzen hasi, eta konturatu zirelarik guztiz ezinezkoa zitzaiela elkar ulertzea: gau osoan, bata errusieraz eta bestea italieraz aritu zirela… Benetan, orduan jo zuen goia haien harridurak. Eta, elkar ulertu ezinik, intziri egin zuten, eta espantu. Baina, ordurako, elkarren berri xehea, sekreturik sekretuenak emanak zizkioten batak besteari. Eta kobazulo atariko pintoreak zigarrokina bospasei inurriren alboan zapaldu bitartean, eszenak koadro bat merezi duela pentsatu du, kantu bat agian…

Eta egunaren gainbehera horretan, kobazuloaren aurrean eta oihanera begira, pintorea poema batekin

oroitu da, zeren batzuetan literatura, artea, opari bat bezalakoxea izan daiteke, erregali baten antzekoa, hala nola Jairo Anibal Niñoren poema hau:

Zure urtebetetzean, ziur nago,
opari baliotsuak egingo dizkizute:
atzerriko perfume bat, eraztun bat,
agenda bat edo ordenagailu bat.
Nik, baina, gereziondoaren zurez egindako
kutxatxo hau besterik ezin ekarri,
eta, barnean, hazi batzuk besterik ez:
laranja arbolarena, pagoarena,
mimosarena eta artearena,
haritzarena, sahatsarena
eta gereziondoarena.
Nik, baina, dirurik ez zuri ezer baliotsurik erosteko.
Nik, baina, baso bat besterik ez zuri oparitzeko.

Kurdistanen, arkeologo ingeles batzuek gorpu baten aztarrenak deskubritu zituzten. Laster ondorioztatu zuten emazte gazte *neanderthalensis* bati zegozkiola, eta, beraz, 100.000 urtetik goragokoak zirela. Gorpuzkinak badaezpada ere Londresera eraman zituzten, bertan analisia palinologikoa egitera; baina, hara non, ustez bestera, oso polen neurri handiak topatu zituzten. Arkeologoek kobazulo atarian ikusitako lorearen polentzat jo zuten, baina gorpua lurperatutako tokia haitzuloaren barrenbarrenean egon, eta hortik segitu zuten ez intsektuek ez aireak ezin izan zuela polena eraman eta, finean, norbaitek nahitara eraman zituela hara loreak.

Atxagak pintoreari buruzko ipuina eta ekuazioa *Egunkarian* argitaratu eta gero, Xabier Kintanak Kurdistango pasadizoari buruzko artikulu bat plazaratu zuen kazeta berean, eta berba hauekin amaitu zuen: «Haiek, gure antzera, loreen edertasuna miresten zuten eta bazekiten horrelako eskaintza sentimental eta estetikoak egiten. Atxagak arrazoi du: gure zibilizazioaren aurrerapen teknologikoak eta aldaketak gorabehera, gizakiok lotzen gaituen katea ez da guztiz eten. Gauza batzuk, denboraz harago, antzera ikusten ditugu, antzera sentitzen…».

Antzeko zerbait kontatu zidaten Oñatiko Aloña Mendi taldeko espeleologoek ere: Aizkorripean, Urbiako zelaietan, artzain borda bateko zuloa miatzen hasi, eta neskatila baten gorpuzkinak topatu zituzten: bularraldean hartz baten hagina zeukan. Ekain kobazuloko harrizko zintzilikario landuak nola, aspaldi handi hartan ere apaingarri. Baina, zeharka, gure pintorearen kobazuloko haiekin desberdintzen gaituen ezaugarri bat ere nabarmendu zuten: orduko gizakiak, asko jota, 20 urtez bizi ziren: bizi edo, malbizi edo…

Pintura traste eta trepeta guztiak jasorik, pintoreak azken begirakunea josi dio paisaiari. Eguzkia, masusta baten antzera, bertara jausi da. Erdizka efimera, erdizka monarka sentiturik, Felix de Azuaren hitzak etorri zaizkio gogora: «Nago sortze berri bat bizi dugula, aldi guztiz berri bat datorkigulako, sua edo gurpila asmatu zirenean bezala, eta geure aro propioaren primitiboak garela». Erdizka efimera edo monarka, erdizka primitibo sentiturik, pintoreak pentsatu du Bergerrek edo Wittgensteinek arrazoi zutela, eta beharrezkoa zaigula, inoiz baino gehiago, isiltasun aro bat…

Baina pintoreari berandutzen ari zaio eta, une batez, pospoloaren burua lixaren kontra sutzen den antzera, egun osoaren ondotik sakelako telefonoa piztu du. Lehen bristada itsugarriaren ostean etorri dira dei galduak eta mezuak. Argi dago etxekoak zain dituela. Epeltasun bila joan beharra dauka; epeltasuna eskaintzera, bere basoa, bere oihana, bere koadroa oparitzera.

Eta autora doala, ilunpetan, adaxkak zapaltzean tarteka ateratzen duen hotsarekin ikaratua —belduerrak ere ez ote gaitu, bada, lotzen, antzinako gizonemakumeekin, denbora iragaitearen kontzientziak baino gehiago?—, pintorea atzera berriz antzinako euskal jendartearekin gogoratu da, haiek Eguzkia agurtzeko zuten usadioarekin:

‘Eguzkia badoa bere amagana,
bihar etorriko da aro ona bada’.

(Testu hau ***50*** izeneko liburu~diskorako pasarte moldatua dugu; nobelan sakabanatua, hona hemen *Idatz eta Mintz* aldizkarirako bateratua, berritua eta gaur egun egileak eskaintzen ari diren ikuskizunerako egokitua. Hitzak Patxi Zubizarretarenak izan arren, marrazkiak Mintxo Cemillanenak dira eta, musika nahiz ahotsak, Joserra Senperena, Maddi Oihenart, Antton Valverde eta Oihane Igerabiderenak. Informazio gehiago Txalaparta argitaletxeko web orrialdean.)

IRATXE ORMATZA IMATZ

Madalenen hariak

Madalen, egonean. Senarra joanda, oilar-burruka ikusten eta apustua egiten. Jesarrita baserriko portalean, bere buruagaz baino ez. Halako baretasunagaz, itsasoa inoiz olatu barik egoten zan letxe. Sufrimentuaren oihartzunik ez; ondo ostenduta, sikiera. Baserrietako teilatuak, goitik ikusten; itsasoa, urrunean. Urte lazgarrienetan ez zan gauza begiratzeko teilatuei, etxeei; basoko arboletan galdu behar izaten ebazan begiak; txorien hegalaldiak, katagorrien joan-etorriak, ames.

Zumetxa baserriko neskea igaro zan bidetik, titiko umeagaz. Solora jo eban Madalenek; hara-hona, landara artean; ondo egindakoaz, harro. Sagar ezin ederrago biri jo eutsen begia beheko adarretan, baita hartu be. Urrunean, jesarrita, Paule umeari titia emoten, osteratik bueltan. Ezkaratzera itzuli, eta Paule ikusteko moduan jarri zan, eguzkitan. Palankanako urak freskatu eutsan eztarria. Ura beharko eban Paulek be.

Umeldu jakozan begiak orduan be, ahalmen hori eukien titiko umeek. Negar-anpuluak iruntsi ebazan; uraren freskotasuna egosi eban iruntsitakoak. Damutu zan, anpuluak eztarri behera joandakoan. Geroago segurutik urtengo ebela, gautu baino lehen; ohean, beluen-beluen. Gogoa eukan Paulegaz egoteko, edo, beharbada, Paulegaz baino, umea inguruan izateko; ahal izanez gero, altzoan.

Besoa altzau eta: *Paule!* Paulek buruagaz agurtu eban, okotza goratuz. Etorteko eskatu eutsan eskuagaz. *Ur freskue dekozu hemen*; irribarrea zabalduz. Gozo-gozoa zan umea: altzoan hartzen itxi eutsan. Bihotza bete jakon Madaleni. Eperdia garbitu eutsien, ia berba egin barik.

Eguzki epelaren eta haize freskoaren laztan artean, isilik; umetxoa, lotan; harik eta Madalenek ea zelan egoan itandu arte. Arnasa zatika hartu, eta ganezka agertu ziran Pauleren begietan negarrak, zotinak. Belauna laztandu eutsan Madalenek; besarkatzeko, laztan handiagoak emoteko atarian geratu zan. Hogei urteren bueltan egongo zan Paule; bigarrena galdu eban Madalenek bere edadean. Urruneko urte hareek tropelka zetozan gomutara. Ahaleginak eta bi egin ebazan uxatzeko; alperrik. Lar indartsuak agertzen ziran.

Zer dozu, laztana?, borobildu eban, suabe-suabe. Borborka urten eben, oraingoan, berbek, zotin artean. *Bakarrik, triste, negar, gau ilunak, inor ez, inork ez, inori ez, mina, bihozmina*. Hainbatetan ahoratu ebazan. Beste berben artetik bereizi, eta geziek letxe barruraino sartzen jakozan Madaleni. Itsasoko uda amaierako olatu biziek itsas hondoa zelan harrotzen, halan astindu ebezan berbek Madalenen barrua.

Paulek arnasa nasaiago hartu ebanean, Madalenek ura ekarri eban. Franko edan eban Paulek; zelanbait, barrua lehortu eutsien berbek eta negarrek.

Dardarka eban gorputza Madalenek. Hogeta hamar urtetik gora igarota, eta, halanda be, dardarrean. Halanda be. Umetxua intzirika hasi zan. Zabuka egin eutsan amak; denporea behar izan eban arren, nasaitu eban akabuan. Umearen txito arpegi barea; irribarrera jo eben Madalenen ezpanek, ezin gorde umetxuak eragiten eutsan maitetasuna.

Konteteari ekin eutsan; artean ezin eutsalako gehiago eutsi.

Paule baino gazteagoa zala baserrira etorri zanean. Jose aurretik bisitak egiten eutsazala etxean lehengusu zaharrago bategaz. Ez eukala akorduan ondo zelakoa zan Jose orduan. Bera baino askoz be nagusiagoa egiten jakon; besterik ez. Euki, 15 urte gehiago eukazan Josek, berak baino. Hiru neben artean, alaba bakarra zan Madalen. Prisa-edo eukan aitak Madalen etxetik aterateko. Josek Madalenegaz gura ebala agertu, eta segiduan baiezkoa emon eutsan. Amak ez eban ezetz esan, Josek baserria eukan, eta hori asko ei zan. *Ganera*, amak, *ez dozu gurasoak jagon beharko, ezta ezelako familiarik be, bakarrik bizi da-eta. Behar gitxiago izango dozu*. Ez eutsien egin inoiz itaunik edo antzekorik, ea berak zer gura eban. Horretan jarri ezkero, seguru antzean, ezetz esango eban.

Isildu egin zan, zeozer pentsau beharko baeban lez. Handiegia jakon mina. Zenbat bider kontauko eutsan bere barruari hori dana, eta, halanda be, halanda be, estututa eukan barrua, trapua sikatzeko zelan.

Neguan joan zala biziten baserrira. Hotz handia egiten eban sutondotik urrundu ezkero. Eta, osterantzean be, etxeak ez eukan ezelako berotasunik, gozotasunik; Jose lakoa zan etxe barrukoa. Narrutan egiteko gogoa eukan beti. Berak, gurago eban bere esku jakintsuek laztanak egitea, ostera; hankatartea berotea, neba txikiaren lagunagaz akordetea, zelan ibilten ziran olgetan basoan, larran, berba egiten, barreka, denpora pasan. Harek, bai, ikusteagaz batera, handitzen eutsan beheko ahoa. Hori dana ez deutso esan. Bere tartea zan, berarena baino ez.

Etorri eta gitxira, umea ernaldu jakon. Ama ez zala inoiz etorri bisitan. Aita, etorri bai, inoiz, baita polito edan be senarragaz txakolina.

Lehenengoa jaio zanean, ezin politagoa egin jakon umea. Titia emoten, gozaten eban gehien.

Bakartasun erabatekoak estutzen eutsan eztarria, ostera; orratzaz beterik eukan samea. Etxeko ardurea, umearena, eta inor ez apur bat laguntzeko, arnasa emoteko. Osteratxua egiten eutsien, lantzean-lantzean, auzoko andrek eta neskek. Madalenek ezin eban, ostera, topau hareen ahoan bere bihotza laztantzeko berbarik. Azkora batek zorrotz, sast, ebagi izan ebezan lez ingurukoakaz bat egiteko hariak; bera mundutik aldenduta. Arteak hartu ezinik bizi zan urteetan. Ingurukoen berbek nekez eukien oihartzunik bere barruan. Eta bere bihotzbarrukoak, aldiz, ez eben inoiz topau berak behar eban laztan beroa. Gurasoenean inoiz sentidutako bakartasuna itsasoa baino handiagoa egin jakon senarragaz.

Bihotz bakana baleu lez sentiduten zan. Arima herratua zan berarena. Txakur galdu baten antzera. Batzuetan begitantzen jakon bihotzak bere gorputzetik gura ebala urten, gorputz mingor hori itxi eta beste batean, beroagoan, gozoagoan, sartu. Errua berarena izango balitz lez. Erru ahalguztidun bat zan barrukoa. Azkorakadek areagotu egiten eben hori guztiori; munduagaz bat egiteko modua guztiz eta errotik ebagi eutsen.

Umea oinez hasi, eta pentsau eban hobeto ezagutu behar ebazala inguruko andrak eta neskak. Barriketan egiten eban, soloaz, etxeko zereginez, eguraldiaz, umeaz-eta. Asko lagundu eutsan horrek, bere pentsamentuetatik iges egiten. Barriro ernaldu, eta tripea handitzen hasi eta gitxira, galdu egin eban. Ez eutsan esan Pauleri horren ganera ezer. Eta ekin eutsan konteteari: bigarrena eta hirugarrena eta laugarrena be ekarri ebazala. Lau mutil, etxean, eta gizona. Egun osoan, ia astiune barik; ekinean, goizetik eta gauera arte.

Bakartasuna handitu eutsien zelanbait umeek, halan eta guztiz be. Auzokoen barriketek ez eutsen urratzen barruko bakartasuna; ezin azaletik barruago joan. Munduan, bizitzan, bakarrik. Ez eban guztiz ulertzen barruko bakantasun hori; umeak hanhemen, Jose ondoko ohean, auzokoak inguruan. Soloan piperrak ereiten, edo porruak ateraten, neguan zein udan, garrasi egiten eutsan bihotzak, minaren minaz. Azkorakadeak fin ebagi ebazan hariak; bakartadera kondenau.

Ezinezkoa jakon azaleko barriketatik harago joan eta bat egin andrakaz. Buru bi eukazan barruan: bata, bihotzegaz bat eginda, eta bestea, autu-mautuan ebilena ingurukoakaz. Batzuetan ernegua be emoten eutsan, baina baserriko hormak gomutan hartu, eta hobea zan hori, ezer ez baino.

Bihozminetan, eguna joan, eguna etorri. Holan joan ziran hileak, urtaroak eta urteak, urteak. Eta ez bat edo bi, ezpada ze asko eta asko. Amore emon eban, kanpoan ez ebalako aurkituko behar eban hori. Ezerk ez ebalako aldatuko. Umeak mutil handiak egin ziralako. Gizonak bera joteko indarra galdu ebalako. Batek daki. Ikasi eban. Bakantasunegaz biziten ikasi eban, nahiz eta gorputza azalean amaitu. Barrua jagoten hasi zan, bakartasunetik iges egin barik. Udabarriko eguzkia, udako ortuariak, bedar ebagi barria, lurraren umela usaintzea, edurtzaren isila, neguko sutondoa... hamaika gauza egoan inguruan nasaitasunerako bidean. Hariak osatzen ikasi eban, luzatzen, eskaintzen. Astiro-astiro, bara-bara.

Sagarra eskuan eskini eutsan, eta irribarrea, eta denpora, eta bihotza, dana.

Haria.

AMAIA ITURBIDE

Bidezidor kromatikoak

I

Bahetutako euri leunaren artean
kimonoak agertuz doaz lorategian.
Gereziondoak eta aranondoak dira
ilargien maskara zurbilekin
kaolinezko keinuekin
inausitako urratsekin.

Haikua ere bere uharte txikian dago.
Ez du beste ahapaldirik behar.
Guk ere ez dugu gehiagorik nahi
espazio hori kaligrafiatzen dugun bitartean
eta ertz koskatuko pitxerraren ingeradak
eta gure bakardadeak jadanik bat egin dutenean.

II

Jakin-mina, ikusmina
putzaldia denean abar:
egun berria dago urratzear.
Pospoloaren sugar barruko
pinpilinpauxa ere dar-dar.

Jakin-mina, ikusmina
edo txorien txorrotxioen artean
hosto berdeek dirakite karraskan,
txorien eztarrietan ere
entzuten dira kirrizki eta kirrizkak:
giltzak txingarretan.

Jakin-mina, ikusmina
tigre lokartua
dirudien lorean
eta mataza den
urretxindorraren kantuan.

Jakin-mina, ikusmina
kolore batek beste kolore bat
nola hiltzen duen
aztertzen dugunean.

III

Mihisearen bilbadura
gero eta hondoratuagoan
bukaerarik gabeko
arrastoen bidegurutzeak
uso grisetik arbel griserainokoak.

Gero eta sartuagoko gauean
bonbilla barruko
harizpi gorri-marroiak
armiarma sareago.

IV

Badago zerbait:
kartoi puska baten hondo-hondoan
urrezko berdearen zama.
Oliba-oliozkoarena ere
hor dago edo
nekea nekearen gaineko orbanetan.
Eta baita maskuri koloreko
zorrotxoarena,
penaz beterikoa,
hau ere pixkanaka eta leun
urreztatuz doana.

Baina bada gehiagorik:
hau guztia
helio argizko berde koloreko
hego bihur daitekeenean.

V

Begiradaren tristura mutua
zuri-beltzean
geruza luzetan.
Beste begirada, ordea,
erliebe estanpatua da eta
erle-habiaren bordatuan datza.

Sutondoko sugarrek eta
ahots zuriz osatutako elur maluten koruek ere
kontrapuntuan dihardute
batek daki zenbatgarren pausoan,
eguneroko topalekuetan
albiste gogorrak dakartzaten
zuri-beltzeko egunkariek
eta pinpilinpauxen hautsezko
hego ameslariek bezalaxe.

JABIER KALZAKORTA

Betelu eta Lekunberriko erregen bezperako kopla zaharrak

1. Sarrera

Eske-kopla zaharrak Euskal Herri osoan kantatu ohi ziren. Eske-koplak kantatzeak, kasurik gehienetan, urteko garai jakin batzuetako erritu zaharrekin zerikusia zuen. Urteko garai jakinak neguko eta udako solstizioak izan ohi ziren. Solstizioetatik aparte otsaileko lehen egunek ere garrantzia handia zuten. Ganderailu eta santa Ageda bezperak egun erabakigarriak ziren pentsaera zaharrean.

Erritu zahar hauek, etnologo eta musikari batek baino gehiagok aitortzen dutenez, kristau aurreko kulturan zuten sorburua. Ezagutzen ditugun testigantzen arabera, Iparraldeko eske-kopla bilduma handirik ez zaigu iritsi. Iparraldeko eske-kopla zahar interesgarrienak Zuberoakoak dira. Zuberoako *albadak*, Orhipean, R. Gallopek dioenez, haurrek Larraine herrian, urtarrileko azken larunbatean, etxe bakoitzaren aurrean kopla zahar erreskada bat kantatzen zuten. Txomin Peillenek dioenez, ordea, Kanderailu bezperan kantatzen omen ziren, hots, otsailaren batean. Albadak kantatzeko ohitura Zuberoan azken urteetan Larrainen bakarrik gordetzen zen. Leku askotan kopla zaharrak kantatzeko usadioa ere aienatu da. Albadak kantatu ziren azken aldia, esaterako, 1955 urte ingurua izan zen, eta Ugarre eta Andozeko gazteek kantatu omen zuten (Peillen: 1975). Mendeetan barrena iraun duen ohitura miresgarria, beraz, galdu da eta mende erdian baino gehiagoan ez da albadarik kantatu.

Nafarroan, Arruazun, Uharten, Arbizun urte berriko egunsentian ur berria zekartela sartu ohi ziren umeak etxean. Ezagunak dira, bestalde, Hegoalde osoan kantatzen diren Santa Ageda kantak. Gipuzkoan Gabon zahar egunean eta san Juan gaueko eskea dira ezagunenak. Kopla-bilduma zenbait kantutegi ezagun zein artikulu monografikoetan aurkitzen dira. Kopla-bilduma gehienak, ordea, elkarren antz handikoak dira. Artikulu honetan Nafarroako Araitz bailarako Betelu eta are Lekunberriko kopla zaharrak argitaratu nahi ditut. Kopla-bilduma hau euskaraz ezagutzen dudan bildumarik eder bezain aberatsenetakoa da; aberatsa, 36 koplako bilduma delako; ederra, bildumako kopla asko beste inon aurkitu ez ditudalako. Bilduma honek zahar kutsu harrigarria du. Kopla asko apurren bat desitxuraturik badaude ere, eder kutsu nabarmena agertzen dute.

2. Betelu eta Lekunberriko koplen ezaugarriak

Artikulu honetan argitaratuko ditudan koplak urtarrilaren bostean, Erregen bezperan, kantatzen ziren. Gabon garaian hiru-lau data esanguratsu izan ohi dira. San Nikolas eguna, Gabon eguna, Gabon zahar gaua eta Erregen bezpera. Kopla hauek, itxura guztiak direnez, urtarrilaren bostean, Erregen bezperan, kantatzen ziren. Gure kopla saileko hirugarrenak, esaterako, honelaxe dio: *Iru erregen bezpera,/ beti onela ez gera./ Usario ori galdu ez dedin/*

etorri gera eskera. Kopla honetan garbi agertzen da, beraz, Erregen bezperan kantatzen zela. Hurrengo koplan ere egun bera markatzen da: *Iru Errege etorri dira/ Kristoren adoratzera; gu ere ementxen gatoz/ berori kopelatzera*. Gure kopla-saila aberatsa bada ere, bere ordenan nahasi samarra da. Lehen kopla, esaterako, agurrekoa da. Bigarren, hirugarren eta laugarrenak Gabon-garaia markatzen dutenak. Bosgarren eta seigarrenak nagusi jaunari koplatzeko baimen-eskabidekoak. Zazpigarren kopla nola eman duen baimena nagusi jaunak. Zortzigarren, bederatzigarren, hamargarren eta hamaikagarren koplak nagusiaren laudorioak edo notak dira. Nagusi jaunaren notak guztiz harrigarriak dira. Ez dut beste inon aurkitu holakorik. Euskaraz lehenengoz ikusi ditut. Kopla bakoitzak, gainera, misterio bat baino gehiago ditu. Zer adierazten ote du *nagusi jaunan gerrie,/ erastunien balie* horrek? Nagusiaren gorputza deskribatzen du eta geroagoko *sorbaldartia zabala du ta/ buruan zentzu handie* ondo ulertzen da. *Nagusi jaunaren gerria eraztunean balia* ez da bitxia? Gehienetan emakume edo are neskatilaren gerria izan ohi da eraztunean sartzen dena. Nagusiaren kasuan, ordea, bitxi baino bitxiagoa da. Bederatzigarren koplak nagusi jaunaren etxeak bazterrak zabalak dituela dio, hain zabalak non *bostegun* edo *seiegun*, hots, bostehun edo seiehun (itsas)ontzi baititu. Ez da ondo ulertzen, ordea, *nonbait kenduben baditu* horrek zer esan nahi duen.

3. Betelu eta Lekunberriko zenbait koplaren iruzkina

Zenbait kopla apur bat aldaturik eta are desitxuraturik aurkitzen dira. Beste kopla-bilduma batzuetan zenbait ahapaldi hobeki ulertzeko giltza ematen digute. Eman dezagun, kasurako, lehen ahapaldia.

Dios te salbe, ongi etorri,
gabon Jainkoak demala,
gabon Jainkoak demalarekin
biar ongi dekargula.

Lehen kopla honetan *eman* aditza jokaturik ikusten dugu, gainerako kopla-bildumetan inoiz aurkitu ez duguna, hain zuzen. Ahapaldi honetan, bestalde, bitxi eta harrigarri egiten zaigu ahapaldi barruko bihurkian *gabon Jainkoak demalarekin* delakoa. Lehen koplako *demalarekin* delakoa euskarak onartzen ez dueun berrikeria bat dela deritzat. Uste izatekoa da bide hori hartu baino lehen beste modu honetara izango zela:

Dios te salbe, ongi etorri,
gabon Jainkoak demala,
gabon Jainkoak demala eta
biar ongi dekargula.

Hasierako kopla honek badu bere kide ezaguna, kopla-bilduma batean baino gehiagotan aurkitzen dugu eta. Gabon zaharretako kopla argia da (Peillen: 1975):

Dios te salbe, ongi etorri,
gabon Jainkoak digula,
gabon Jainkoak digula eta
urte onean sar gaitzala.

Ataungo kopla-bilduman ere *in aditz jokatua ikusten dugu. Lerro hauen ondoren transkribatuko dudan koplan *digula* aurkitu beharrean *diela* adizkia ikusiko dugu. Guk *diela* ulertzeko "berei" bati zuzendua dagoela ulertu behar da, hots, *berori* forma singularra bada (*Jainkoak berorri egun on diola!)*, *berak* forma plurala da (Jainkoak berei egun on diela!):

Dios te salbe, ongi etorri,
gau on Jainkoak diela,
gau on Jainkoak diela eta
biar on egun diela[1].

Seigarren koplaren baliokideak gutxi baino gutxiago aurkitzen dira gure bildumetan.

Ate au eder ezpelez,
atalburua zillarrez,
nagusi jauna, esan bezaigu
asiko geran edo ez.

Kopla honen tankeratsukoa da Ibaiertzek *Zeruko Argia* (1974, abenduaren 22, 616 zenbakia) aldizkarian argitaratu zuen seigarren kopla:

Etxe ondoa lizarrez
atalburua zilarrez,
nagusi jauna esan bezaigu
asiko geran edo ez.

Araizko bailarako hamahirugarren kopla bestetan ere aurkitzen da. Delako kopla horretan urre-arropak eta zilar-kateak aipatzen dira. Hona hemen:

Urre-erropa alderaiño,
zillar-katea lurreraiño,
orren parerik ez da arkitzen
Sebillatik oneraiño.

Kopla honen tankerakoa da Aezkoako Abaurrepeko kopla sailean (Urdiroz: 1996) datorrena:

Mantu belza lurrereino
cabardina erdireino
orra bada Bicario jaun noble orren pareric ezta
Salamancatic gonaino.

Guk argitara genuen kopla-bilduman ere (Kalzakorta: 2003) kopla oso antzerakoa ikusten dugu:

51
Zaia duzu lurreraino,
zederia erdiraño;
zure parerik ez dela jaio
Londrestik eta onaño.

Hemeretzigarren-hogeigarren koplak ilunune nabariak dituzte. Hona kopla biak:

19
Eskuen eder eskuko,
lino zurie soñeko.
Orra bara ta Florenzio ere
ederra lagun arteko.

20
Ederra lagun arteko,
obiagua korteko[2],
zazpi zalduntxo balio ditu
da amabi kortejatzeko.

Zer adierazten du hasierako *eskuen eder eskuko* horrek? Eskuko edo eskurako ederra dena zer da? Lino zuria soine(ra)ko eder den bezala beste zerbait da ederra esku(ra)ko. Zer da hori? Bi kopla horien baliokideak bakar-bakarrik Ataungo kopla-bilketan aurkitu ditugu. Hona 62-63 koplak:

Eskuak eder eskuko,
jipon zurie soñeko;
orra bada ta (izena) ori
ona lagun arteko.

Ona da lagun arteko eta
are area korteko,
zazpi zalduntxo balio ditu
dama bat kortejatzeko.

Bi kopla hauek ere ez digute korapiloa askatzen. Ataungo kopla bildumako lino *zurie soñeko* Araizko bailarako ereduan *jipon zurie soñeko* da. *Eskuak eder eskuko* edo *eskuen eder eskuko* horiek erabat ondo ulertu gabe gelditzen dira. Ataungo kopla-bildumak argitasun berria ematen digu Araizko bailarakoa ulertzeko. Jatorrizko dokumentuan datorren *da amabi kortejatzeko* beste modu batera ulertu beharra dago: *dama bi kortzejatzeko*.

Araizko bailarako 22 zenbakiko irudia beste askotan ere ematen da. Konparagaiak oilarrak edo harriak ere izan ohi dira. Hona, esaterako, Satrustegik *Ekaitza* elaberrian dakarren kopla ezagun bat:

Etxe onetan oilar bi,
batek bestea erori;
etxe onetako zaldun gazteak
hamalau urre txintxarri.

Kopla honetan nekez ulertzen dugu *batek bestea erori* esaldia, kopla berez desitxuratua dagoelako. Beste aldaeretan *Etxe onetan oilar bi*, *batek bestea dirudi* izan ohi da eta

halaxe errazago ulertzen da. Konparantza Ataungo kopladiko 110 koplan ere aurkitzen dugu:

Poltsean dauzkat diru bi
batak bestea dirudi;
orra bada ta (izena) orrek
urre botoia dirudi.

Misterio bat baino gehiago ditu, beraz, Araizko kopla bildumako 29 zenbakiak:

Etxean au eder latatu,
ospitalean pintatu.
Gazteak ikasberriak ere
nagusi jauna barkatu.

Zer adierazten du *Etxean au eder latatu* horrek? Zentzu handiagoa luke *etxea eder latatu* balitz, hala ere *ospitalean pintatu* delakoak ez dio argibiderik eransten. *Gazteak ikasberriak ere* horrek zer adierazten ote du? Zentzuz jantziago daude, inolako dudarik gabe, Ataungo kopla bildumako 117 eta 118 koplak:

Salamankan naiz izandu
bidean estudiatu,
estudiante gazteak gera
ez degu ondo koplatu.

Etxea ondo latatu,
palaziotzat pintatu;
deskortesirik egin badegu,
jende nobleak, barkatu.

Kopla-kantariak gazte estudianteak direla dirudi, Salamancan estudiatzera joanak, baina bidean ikasitakoak. Hortik, beraz, 29 zenbakiko *gazteak ikasberriak*.

Leku batean baino gehiagotan ikusten dugu erabat desitxuratua zentzu erabat argia duen kopla:

Ezpata au eder Mariarekin
Maria brontzearekin[3].
Gu emendikan bagoaz eta
gere Jaingoikoarekin.

Ezpata hau eder Mariarekin ez da ulergarria. Jatorrizko zentzua hartzen du Ezpata (au) eder majiarekin/majia brontzearekin. *Majia* ezpata sartzen den zorroa dugu. Ibaiertzek bildutako kopla-bilduman zein beste bilduma askotan argi aurkitzen dugu[4]:

41
Eder ezpata majiarekin
majia prontalarekin,
etxeko andrea etorri zaigu
eskuan limosnarekin.

4. Betelu eta Lekunberriko kopla zaharrak

Puntu honetan argitaratuko ditudan koplak Koldo Mitxelena Kulturuneko Aitzolen funtsean 091 AIT doc-87 001 signaturan aurkitzen dira. Kopla hauen buruan zehaztasun hauek datoz: *Urte berrietako karrika-eresiak (Betelu ta Lekunberri inguruetako erri txikietan bilduak)*. Kopla-



errezkadaren ondoren zehaztasun hau dator: *Bertso batzuek baño luzeagoak eta besteak laburragoak dirala? Doñuak, musikak bear dan neurrira ekartzen ditu; luzeegiak laburtu, ta laburregiak luzatuta. Ara bertso oien doñua*:

1
Dios te salbe, ongi etorri,
gabon Jainkoak demala,
gabon Jainkoak demalarekin
biar ongi dekargula.

2
Santa Isabelek onela
Jesus gabonen ederra,
Jesus gabonen ederra da ta
biar ongi dekargula.

3
Iru Erregen bezpera,
beti onela ez gera[5].
Usario ori galdu ez dedin
etorri gera eskera.

4
Iru Errege[6] etorri dira
Kristoren adoratzera;
gu ere ementxen gatoz
berori kopelatzera.

5
Izartzen digu bidea,
[er]reberentzie lurrera
lotsa gerala [a]trebitzen gera,
jauna, berorren aurrera.

6
Ate au eder ezpelez,
atalburua zillarrez,
nagusi jauna, esan bezaigu
asiko geran edo ez.

7
Eunek eman du klarenzie,
Jaun zerukoaren grazie.
Nagusi jaunak eman di[g]u guri
kopelatzeko lizentzie.

8
Nagusi jaunan gerrie
erastunien balie,
sorbaldartia zabala du ta
buruan zentzu aundie.

9
Nagusi jaunan etxeak
bazterrak zabalak ditu;
bostegun[7] edo seiegun[8] untzi
nonbait kenduben baditu.

10
Nagusi jaunan etxea
arma oiek dauden etxea,
zaldunak baizik ez baita sartzen
arma oiek dauden etxea.

11
Oiek guziak benespetxorik
berorrek eragin ditu;
Urrezolako ziudadean
garik deskargatu ditu.

12
Naparroan da Bardena
Kaparrosaren barrena.
Etxekoandria kopela zagun
nagusi jaunen urrena.

13
Urre-erropa alderaiño
zillar-katea lurreraiño,
orren parerik ez da arkitzen
Sebillatik oneraiño.

14
Muskarrak eder arropa,
iduri ari arroka.
Orra bada ta Kontxak ere
jantzi du urre-arropa.

15
Ezkillek beren kabotik jotzen,
jendea zer den galdetzen.
Etxe ontako etxekoandria
kotxian da elizeratzen.

16
Kotxean da elizeratzen,
urre-sillean da jartzen,
urre-sillean da jartzen eta
urreaz ofrendatutzen.

17
Sibilizio Portugalian[9]
iduzkiaren itzalpean,
ispillu legez fia liteke
Kontxaren korputzean.

18
Soroan eder goldea,
soñean gona morea.
Birjiñarekin konparatzen da
Jauna, beror[r]en andrea.

19
Eskuen eder eskuko,
lino zurie soñeko.
Orra bara ta Florenzio ere
ederra lagun arteko.

20
Ederra lagun arteko,
obiagua korteko[10],
zazpi zalduntxo balio ditu
da amabi kortejatzeko.

21
Soñean eder amille,
Pio da mutil abille.
Dabillen leku guzietan ere
ondra bidean dabille.

22
Poltsan daduzka diru bi
batak bestea dirudi.
Orra bara ta Pelixek ere
zaldun-semea dirudi.

23
Or goien goien iturri,
ur orrek ixurik ekarri.
Orra bara ta Josek ere
Niño Jexuxe dirudi.

24
Galtzaran eder arrie[11],
illean zinte gorrie.
Orra bara ta Lidiak ere
ederra dauke begie.

25
Ederra dauke begie,
obeago gerrie.
Orren parerik ezta arkitzen
orain aldian errien.

26
Otarietan txillarra berde,
negurietan latxara.
Orra bara ta Julianak ere
badauke baten patxara.

27
Etxean eder ollo beltza,
kamioetan mando beltza.
Orra bara ta Salomek ere
ederra dauka begiaren ertza.

28
Elizen eder liburu,
usoak ondo inguru.
Orra bara ta Juanitak ere
parabisuen aingeru.

29
Etxean au eder latatu,
ospitalean pintatu.
Gazteak ikasberriak ere
nagusi jauna barkatu.

30
Nagusi jauna, barkatu
gaizkirik esan badegu.
Gure deskortesi oietara
ez dezala begiratu.

31
Pitxarratxuak ondoa txabal,
katillutxuak agoa.
Gure artea dakarkionari
lagun daikiola Jainkoa.

32
Ezpata au eder Mariarekin
Maria brontzearekin.
Gu emendikan bagoaz eta
gere Jaingoikoarekin.

33
(Erretorearen atarian)
Intxaurrak eder ostoa,
San Pedrok lanpara osoa.
Meza emantzalle onrosoa da
Don Fermin Betelukoa.

34
(Apaiz-lagunaren atarian)
Garie eder galbaiean,
Izurki ona ugaldean.
Prenda maitea jartzen zaigu
Don Julian jauna aldarean.

35
(Medikuari)
Don Juan jauna, gizon abille,
obretan maite dezagun,
merezi ere ala du baño
ongi estima dezagun.

36
Sedan daduzka obia,
zirriku zarrak bidia.
Merezi ere ala du baño
noblia dauka andria.

5. Bukaera

Araizko kopla hauetako banaka batzuk bederen kantatzen ote dira orain? Erantzun zuzena izateko bertako lekuko on eta adinduen galdetu beharko. Erabili dugun bibliografian ez dugu arrasto handirik aurkitu. *Araitz-Beteluko ahotsak. Ahozko tradizioaren bilduma 2007* lanean kopla bat edo beste badator, baina ez orrialde hauetan jarri dugun sail luzerik.

Bibliografia

BIDASOTARRA (1967): "Urte berri ta Eguerritako kanta zarrak", *Principe de Viana* (euskera) Noviembre-Diciembre.

BAZTARRIKA, I. (1982): "Ataungo Santageda kantak", *Jaunaren deia*, urtarrila-martxoa, 78 zkia, 69-97.

DONOSTIA, P. J. A. (1918): "Apuntes de folklore vasco. Canciones de cuestación", RIEV, tome IX, 141-172.

— (1924): "Toberak" RIEV, Tome XV, 1-18.

— (1916): "Erregiñetan, o las fiestas de las mayas", *Euskalerriaren Alde*, 241-252.

GALLOP, R. (1930): "Collectanea vasca. L'Albadaka de Larrau", GH, 442-451

IRIGARAY, A. (1933): "Canciones de Navidad, Año Nuevo, etc.", ASEF, tomo XIII, 11-28.

— (1966, 1968): “Burunda eta Sakanako Eguberri kobla zaharrak”, *Diario de Navarra,*8-12-1966, 19-12-1968.

KALZAKORTA, J. (2003): “Erronda-kantuak eta eske-bertsoak”, *Euskera*, 109-163.

LEKUONA, M. (1922): “Fiestas populares”, ASEF, 11-138.

— (1933): “Gabon-kantak(=Cantas de Nochebuena), etc.”, ASEF, tomo XIII, 29-86.

PEILLEN, Tx. (1975): “Eske pertsuen bilduma”, CEEN VII, 47-86.

— (1963) “Aldabak, xikitoak eta erran zaharrak”, *Igela*, 10

SATRUSTEGI, J. M. (1971): “Canto ritual del agua en Año Nuevo”, *FLV*, VII, 35-73.

OHARRAK

[1] Antzeko formulak ugari aurkitzen dira. Azkuek Larraunen kopla hau bildu zuen: *Pakearekin ondasuna, /onarekin osasuna, gure baratzean belar ona: Jainkoak digula gau ona*.

[2]Jatorrizkoan “kortejo”. Hoskidetasunari eta zentzuari dagokienez hobe dago “korteko”.

[3] “Ezpata eder magiarekin/magia frontalarekin” izan ohi da gehienetan. Ezpata sartzeko lekua, erdaraz ‘vaina’ alegia, da euskarazko “magia”. Kopla hauek deskontetualizaturik agertzen direnez gero, herriak nolabait zentzu berriak edo *falso amigo* direlakoak sortu ditu.

[4] *Euskera* 2003ko bilduman ere aurkitzen dugu kopla hau.

[5] Jatorrizkoan *eskera*. Berez *ez gera* batetik datorren *ezkera* izan behar du.

[6] Jatorrizkoan *Iru errege*.

[7] Jatorrizkoan *bost egun*, hots, *bostehun*.

[8] Jatorrizkoan *sei egun*, hots, *seiehun*.

[9] ”Sibilizio Portugalean” horren ondoren galdemarka bat agertzen da jatorrizkoan.

[10] Jatorrizkoan “kortejo”. Hoskidetasunari eta zentzuari dagokienez hobe dago “korteko”.

[11] Jatorrizkoan “errie” dator. Galtzadan eder dena, ordea, “harria” delakoan aldatu dugu jatorrizkoa.

ENEKO URIZAR

Poemak

erbesminak, ezberdinak

Euskal Herritik kanpo
barruko hustasun honi
maitasuna deituko diot.
Pertsonekin ez bezala,
nire herriarentzat tokia
erbestean aurkitu dut.

Nostalgiaren tiraderan
gorde dut gaur maitasuna;
itsasoaren soinu
alde zaharreko usain
betierekoa dirudien iraultza
berdearen diztira
distantzian Berria irakurri
eta
Mari Jaiaren irriarekin batera.

Pertsonekin ez,
nostalgiak mina dakarrelako.

Herriminak ez dira minak
ez lagunen isiltasunak modukoak,
ekoa entzutean
bakardadea baino ez dago.
Min ezberdin bat dago.

ez nezake: ez Bernatek

Askatasunari buruz
idatz nezake.

Musa eta inspirazioaren
argiaren ondoan
poesia idatz nezake.

Aurrean dudana
konta niezazuke.
Nire irriarekin
kanta bat xuxurla nezake.

Baina zuri buruz
idatziko nuke berriz ere.

Zein handia den bakardadea
nostalgiarekin kutsatzean.
Zein handia zuk bete duzun
espazio hutsa.

Zuri buruz
idatzi dut berriz ere.

itxaroan

Itsasondoan bizi nahi dut
itsasora begira, itsasoan
bitartean... itxaroan.
Begirada olatuez betetzean,
itolarrian gatzak,
sodio kloruro-iodo-kimikak,
harrapatu nau.

Portu batean pasiran
bere ontzia konpontzen
pirata bat dakusat
itsasertzean hilzorian
tabernan itolarrian
leihotik itsasorantz
lurretik ihesi egiteko irrikitan
itxaroan, itsasoan.



LOURDES UNZUETA

Tulipan-zuriak

Udaberri hasieran tulipan-erraboilak lur azpian daude landatuta. Erraboilen barruan, zurtoin, orri eta lore izango direnak, estu-estu eginda, ernetzeko zain, eztanda egin eta, tulipan lore eder, ingurua harritzeko. Ezkutuan baina ez isilean. Lur gainean etzan, belarria jarri berton eta hazi ahala euren kra-kra-hotsa entzun daiteke.


LMPC

Ustebako bero sapak bere baitan hartu eta izerditan jarri ditu Bilboko biztanleak. Ez daude berotarako prest, neguko zapata-jantziak aldean oraindino. Kerizpe eta abaro bila hasiko dira sauna-kaleetatik aldendu gurean. Euron artean dabil Ane. Plaza Eliptikora heldu eta hango iturri galantean sartuko ditu hankak freskatzen. Geroago eta gusturago, erdi lotan geratuko da, ondoko lorategiko tulipan-erraboilen kra-kra-hotsa belarrietan.

Urte asko atzera eta, neskato-mutiko taldea Istanbuleko lorategirik ederrenean jolasean dabil. Arrastiria da, eguzkiaren azken printzek urre kolorea ematen diete Urrezko Adar deituriko bazterrei. Marmara itsas ertzean daude bazterrok eta umeak olgetan dabiltzan lorategia lekurik preziatuenetakoa da. Munduko lore motarik gehienak hantxe daude eta.

Belardi zabalak, zuhaitz garaiak, mila kolore eta bat gehiagoko loreak, den-denak hantxe, umeen gozamenerako. Ez dute belardia zapaltzeko debekurik, ez diete loreak hartu eta eurokin apaintzeagatik zigorrik jarriko.

Narotasuna inguruan. Hartu lore bat lurretik eta beste bat erneko da laster bertatik. Edan ur zurrutadak iturritik eta ez da haren jarioa etengo. Izadiaren oparotasuna bor-bor, inguruarekin orekan, erauzi eta erne, erne eta erauzi.

Han dabiltza umeok, iji-aja, belardian itzulipurdika, zuhaitzetara katamarka gora eta behera, jantziak, txanoak eta ile-adatsak lorez edertzen.

Helduago batzuk ere badabiltza paseoan, umezaroaren miraz. Haietako batek, hizkuntza arrotzeko gizona bera, hara non ikusten duen durbantedun mutikoa, eta durbantearen apaingarritzat daraman lorea seinalatuz hara non diotson:

– Zer daramazu hor?

Halimek ez du haren hizkuntza ulertzen eta hara non erantzuten dion bere ordez asmo oneko itzultzaileak:

– *Tülbend*a, otomandarrez, *Dulband*a, persieraz.

Hori ulertu zuen gizonak, horrela hartu zuen izena Halimek durbantearen apaingarritzat zeraman loreak, tulipanak. Izen polita loreak. Edertasunari edertasun, tulipan-espeziei izen are eta politagoak eman izan zaizkie: *Perla urdina*, *Egunsentiaren argia*, *Errubi-ttantta*.

Lorategiko umeen barre-algaren oihartzunak, *tülbend* eta *dulband* berben ahoskerak, tulipan izenen murmurioak, urte luzez airez-aire ibili eta gero, dzanga egingo dute iturri ondoko freskuran lo dagoen Aneren barrura, han bat egingo tulipan-erraboilen kra-kra-hotsarekin.

Halimenena jazo eta lasterrera, Herbeheretan, Leidengo unibertsitatean, botanika irakasle batek laborategian dihardu Istanbuletik ekarritako tulipan-erraboilekin ikerkuntzan. Zuhur antzean gordetzen ditu erraboilok, beretzat bakarrik bailiran. Inguruko-en jakingurak baina ez du mugarik: erraboilok hartu, batzuk jan kipulak bailiran, ea zer gertatuko; beste batzuk lurrean landatu, ea handik zer erneko.

Zer erneko eta mila kolore eta bat gehiagoko tulipanak. Begietan harridura, buruan kofia zuria daramaten andreek.

Tulipan alfonbra harro-harroak jantzi zuen lurraldea orduan. Sekulako zoramena sortu tulipanaren landaretzak, geroko merkataritzak. Haren inguruko grina benetan, tulipana diruaren pare trukerako.

Tulipanen txintxin hotsak ere soinu egingo du Aneren belarrietan. Soinu gozakaitza oraingoa, neskatoa itzartuko duena. Begiak erdi zabaltzerakoan iluntzea dela konturatuko da. “ Ene! Arin joan zait joan denbora, eguzkia goi-goian heldu naizenean, eta hara, orain ilunabarra” dio iturri ertzean erdi etzanda oraindino.

Altxatzerakoan ezin du sinistu itzartuta dagoenik ezta iluntzea denik ere: begien aurrean sekulako ikuskizuna, ez daki benetakoa ala ametsetakoa; sekulako argitasuna, ez daki goiza ala gaueko lilurapena; begien aurrean zer eta plazako lorategian mila kolore eta bat gehiagoko tulipan agertu zaizkio-eta bat-batean, gauean eztanda eginez, Istanbuletik Herbeheretara eta handik Bilbora, suziriak bailiran. Hura harridura, Anek.

XABIER BOVEDA

Alfonsina Storni, bazoaz zure bakardadean

(Sala Capriasca, Suitza, 1892 - Mar del Plata, Argentina, 1938)

Alfonso Storni eta Paulina Martignoni senar-emazteak Suitzako Luganotik emigartu ziren Argentinara, San Juanera, etorkizun hobearen bila. Han garagardo-enpresa txiki bat sortu zuten, eta bizimodua aurrera ateratzea lortu zuten. 1890ean Suitzara itzuli ziren sei urterako. 1892an Lugano ondoko Sala Caprisca herrian jaio zen euren alaba Alfonsina Storni.

Lau urte zituela, gurasoek Argentinara bueltatzea erabaki zuten, hango negoziekin jarraitzeko asmotan. Baina, lehengo familia-negozioa errekaka jota zegoen. 1901ean, aurreztuta zuten apurrarekin, San Juanetik Rosariora aldatu ziren. Kafe-etxe bat ireki zuten tren-geltokiaren ondoan. Baina aita ez zen gauza negozioa gobernatzeko, eta ez zuen atarramentu onik izan. Etxean arazo ekonomikoak zituztenez, Alfonsinak hamaika urterekin hasi behar izan zuen lanean. 1906an aita –edariari emandako gizon etsikorra– hil egin zen. Ordurako, haren hamalau urteko alaba neska heldua zen.

1907an herririk herri ibiltzen zen antzerki talde bat heldu zen Rosariora. Alfonsinak gaixorik jarri zen aktore bat ordezkatu zuen, eta aktore izateko ametsa piztu zitzaion. Amaren baimenarekin konpainia horretan ibili zen Santa Fe, Córdoba, Mendoza eta Tucumánen denboraldi batez. 1910ean maistra titulua atera zuen, eta udagoien hartan irakasle ibili zen Rosarion. Bitartean, poemak argitaratzen hasi zen hango aldizkarietan (*Mundo Rosarino, Monos y Monadas*).

1912an gizon ezkondu eta bera baino askoz zaharrago batekin lehenengo amodio-desengainua izan zuen. Haurdun eta bakarrik geratu zen. Lotsatuta, Buenos Airesen bilatu zuen babesa, eta bertan haren seme Alejandroz erditu zen. Hogei urte baino ez zituen, eta ama ezkongabea izatearen "desohorea" jasan behar izan zuen, orduko.

1916an bere lehenengo liburua argitaratu zuen: *La inquietud del rosal* (*Arrosondoaren arrangura*). Hasierako poesia hartan Ruben Darioren modernismoaren eraginaz batera, ezaugarri autobiografikoak eta maitasunaren gaiaren presentzia nabarmentzen dira. Zenbait kritikarik ez zuten haren obra gogoko izan, desio ezkutuenak argiegi adierazten zituelako, eta ama ezkongabe izateaz lotsatu barik hitz egiten zuelako. Baina *Nosotros* aldizkariak goretsi egin zuen poema-liburua, eta harrezkero inguruko idazle-giroan sartu zen. 1918an bere bigarren liburua argitaratu zuen, *El dulce daño* (*Min eztia*), non estereotipoek eragiten zizkioten

frustrazioak agerian jartzen zituen. Liburu horretan haren poema ezagunenetako bat dago: "Hik nahi nauk zuri".

1919an emakumearen eskubideen alde idatzi zuen, gizarte patriarkala eta emakumeen aukerak mugatzen dituzten tradizioak kritikatuz. Urte hartan *Irremediablemente* (*Erremediorik gabe*) argitaratu zuen. Liburuak oso kritika ona izan zuenez, Montevideoko Unibertsitateak hitzaldi batzuk emateko deitu zion. Orduan ezagutu zituen betiko lagun minak izango ziren Horacio Quiroga eta Juana de Ibarbourou idazleak. 1920an *Languidez* (*Nagitasuna*) argitaratu zuen. Obra horrekin zenbait sari lortu zituen. 1923an harentzako katedra bat sortu zuten Hizkuntza Bizien Eskola Nazionalean. Jarraitu zuen poesia idazten (*Ocre*, 1925; *Poemas de amor*, 1926), eta antzerkigintzan ere saiatu zen, baina horretan ez zuen arrakastarik izan.

1930ean eta 1934an Europan ibili zen bidaiari, eta hango abangoardia bertatik ezagutu zuen. Horrek estilo aldaketa eragin zion, modernismo autobiografiko eta sentimentala utzi, eta poesia abangoardista batera eraman zuena. Irudi jokoak, ironia iluna, hiriarekiko erreferentziak eta larrimin metafisikoa ikus daitezke bigarren etapa honetako liburuetan: *Mundo de siete pozos* (*Zazpi putzuko mundua*, 1934), eta *Mascarilla y trébol* (*Maskara eta hirusta*, 1938).

1935ean bularreko minbizia diagnostikatu zioten. Ebakuntza egin arren, minbizia ez zen osatu. Azken urteetan heriotzaren beldurrez bizi izan zen, kalera ia irten gabe. Zenbait etsialdi ere izan zituen, batez ere, bere lagun Horacio Quiroga, Egle Quiroga eta Lepoldo Lugonesen suizidioen ostean.

1938an, bere bizitzaren amaiera erabakita, Mar del Platara joan zen. Semeari gutun bi idatzi zizkion, eta *La Nación* egunkarian argitaratzeko agur-poema bat, *Voy a dormir* (*Lotara noa*). Itsasoan murgildu zen urriaren 25ean. Heriotza poetiko horrek Ariel Ramirezek eta Félix Lunak egindako kantu hunkigarria inspiratu zuen: *Alfonsina y el mar* (*Alfonsina eta itsasoa*).

Alfonsina eta Itsasoa (Felix Luna)

Itsasoa miazten duen hareatza zurian
haren oinatz txikia ez da berriz itzuliko.
Samin eta isiltasunezko zidor bakarra
iritsi da ur hondora,
samin mutuen zidor bakarra
iritsi da bitsetara.

Jainkoak daki zer larriminek lagundu dizun,
zer min zaharrek isilarazi dizuten ahotsa,
urrumaka etzan zaitezen itsas kurkuiluen kantuan,
itsas kurkuiluak itsasoaren zola ilunean
kantatzen duen kantuan.

Alfonsina, bazoaz zure bakardadean
Zer poema berri joan zara bila?
Haize eta kresalezko antzinako ahots batek
arima losintzen dizu eta deika ari da…
Eta bazoaz harantz ametsetan bezala
lotan, Alfonsina, itsas jantziaz.

Bost sirenatxok eroango zaituzte
alga eta koral bideetan barna.
Eta itsas zaldi fosforeszenteek
itzulia egingo dute zure ondoan.
Eta ur biztanleak jolastuko dira
sarri zure ondoan.

Jaits iezadazu kriseilua apurtxo bat.
Utz iezadazu bakez lo egiten, inudea.
Eta hark deitzen badu, ez esan nagoela,
Alfonsina ez dela itzuliko esaiozu
Eta hark deitzen badu, ez inoiz esan nagoela,
alde egin dudala esaiozu.

Alfonsina, bazoaz zure bakardadean.
Zer poema berri joan zara bila?
Haize eta kresalezko antzinako ahots batek
arima losintzen dizu eta deika ari da…
Eta bazoaz harantz ametsetan bezala
lotan, Alfonsina, itsas jantziaz.

ALFONSINA STORNIREN POEMA BATZUK

HIK NAHI NAUK ZURI

Hik nahi nauk alba
nahi nauk bitsezko
nahi nakarrezko.
Zitori nadin
orotan, aratz.
Lurrin arineko.
Korola itxi.

Ilargi izpi bat ere
irazi gabea.
Bitxilore batek ez nazan
ahizpatzat har.
Hik nahi nauk elur
hik nahi nauk zuri
hik nahi nauk alba.

Ontzi guztiak eskuan
izandako horrek,
ezpainak fruituz
eta eztiz aserik.
Oturuntzean
aihenez beteta
Bakoren omenez haragiak
utzitako horrek.

Engainuaren lore-
baratze beltzetan
gorriz jantzita
Desmasiara bizkor
joandako horrek.
Ez zakiat nolako
mirarien bidez
eskeleto osoa
gordetzen duan horrek,
nahi nauk zuria
(Jainkoak barka diezaala),
nahi nauk aratza
(Jainkoak barka diezaala),
nahi nauk alba!

Alde oihanetara;
hoa mendira;
garbi ezak ahoa;
txaboletan bizi;
uki ezak eskuez
lur basitua;
elika gorputza
sustrai mingotsez;
edan harrietatik;
lo egik lantxurda gainean;
berri itzak oihalak
ur eta kresalez;
mintza txoriekin
eta abia hadi goiztirian.

Eta haragiak
itzultzerakoan,
eta etzalekuetan
nahasitako arima
haietan jartzean,
orduan, gizon ona,
nahi nazak zuri,
nahi nazak elur,
nahi nazak aratz.

El dulce daño, 1918 (Min eztia, 1918)

GIZON TTIKIA

Gizon ttikia, gizon ttikia,
askatu heure kirrixkileta, hegaz egin nahi dik eta.
Neu nauk kirrixkileta, gizon ttikia,
utzidak jauzi egiten.

Hire kaiolan egon ninduan, gizon ttikia,
kaiola ematen didaan gizon ttiki hori.
Ttikia zioat ez bainauk ulertzen
ezta ulertuko ere.



Neuk ere ez haut ulertzen, baina bitartean
ireki iezadak kaiola, alde egin nahi diat eta;
gizon ttikia, maitatu hindudan ordu erdi,
ez iezadak gehiago eska.

Irremediablemente, 1919 (Erremediorik gabe, 1919)

ARRATSALDE HONETAN

Orain zerbait urruna maitatu nahi dut…
Gizon bikain bat
goxoa xoriño bat bezala.
Ezin konta ahala emakume izan dituena
eta beste lurralde batzuk ezagutzen dituena, eta
hitza bere ezpainetan loratzen zaiona, lurrintsu:
oihan birjina bailitzan haizearen pean…

Eta nahi dut oraintxe bertan maitatu. Arratsaldea
leun eta nare dago goroldio sarria bezala,
dardaran dago nire ahoa, baita nire eri finak ere,
txirikordak desegiten dira txiri-txiri.

Murmur lausoa sumatzen dut… Lur guztia
kantuan ari da gozoro… Urrun,
basoak korolaz bete dira,
errekastoek ubideak gainditzen dituzte
eta urak lurrean irazten dira
nire begiak xarmaturik
amesten ari naizen begietan bezala…

Baina
orain eguzkia jaisten ari da mendi ostean,
hegaztiak euren habietan dira uzkurtzen,
arratsaldea itzali egingo da eta bera urrun dago…
Urrun inoiz alde egin eta uzten ez nauen
eguzki hau bezala, eskuak
txirikordetan hondoraturik, ahoa
umel eta dardarati, arima
leundurik, ezti eta eder
bihurtzen nauen maitasun mugagabe
honen esperantzan garturik…

Languidez, 1920 (*Nagitasuna*, 1920)

LAZTAN GALDUA

Atzamarretatik itzuri zait zio gabeko laztana
atzamarretatik itzuri zait… Haizean, igaroan,
noraezean xederik gabe doan laztana,
laztan galdua, nork du jasoko?

Gau honetan erruki mugagabeaz maita nezakeen,
maita nezakeen iristeko era burutzen zuen lehena.
Ez da inor iristen. Hutsik daude bidexka loretsuak.
Laztan galdua, bira… eta bira… ibiliko da.

Gau honetan begietan musu badegizute, bidaiaria,
zizpuru ezti batek abarrak dardarazten baditu,
esku txiki batek atzamarrak estutzen badizkizu
eta hartzen bazaitu eta gero laga, bereganatu eta gero joan.

Esku hori ikusten ez baduzu, ez musu dagien ahoa,
haize hutsa bada musu egiteko ametsaren ehulea,
o, bidaiari, begiak zerua lakoak dituzun horrek,
haizean urturik nagoela, ezagutuko nauzu?

Languidez, 1920 (*Nagitasuna*, 1920)

OINAZEA

Urriko arrasti ezin ederrago honetan nahi nuke
itsas bazter urrunean paseatu;

urrezko hareatzak, eta ur berdeek
eta zeru hutsek igarotzen ikus nazaten.

Garaia, itzela, perfektua izan nahi nuke,
emakume erromatar bat iduri, bat etortzeko

olatu handiekin eta harkaitz hilekin
eta itsasoa mugatzen duten hondartza zabalekin.

Pauso geldoan, eta begiak hotz
eta ahoa isil, gogoa laxo utzi;

olatu urdinak granitoen aurka
nola hausten diren ikusi, eta kliskarik egin ez;

hegazti harrapariek arrain txikiak
nola jaten dituzten ikusi, eta itzartu ez;

ontzi hauskorrak uretan hondora
litezkeela pentsatu, eta zizpururik egin ez;

gizonik ederrena, zintzurra airean,
aurreratzen dela ikusi; maitatzea desiratu ez …

Begirada galdu, oharkabean,
galdu, eta sekula berriro aurkitu ez;

eta, zutik jarrita, zeruaren eta hondartzaren artean,
itsasoaren betiereko ahanztura naizela sentitu.

Ocre, 1925 (*Okrea*, 1925)

ENE HILOBIRAKO EPITAFIOA

Hemen natza: epitafio argi hori diotso
Alfonsinak makurtzen denari.

Hemen natza, eta hobi honetan,
sentitzen ez baitut, gozatzen dut, ase naiz.

Begi lauso hilak ez dira itzultzen,
ezpainek, askaturik, ez dagite zizpururik.

Luze eta zabal lo dagit sekulako;
hots egiten didate baina ez dut jiratu gura.

Lurra gainean dut eta ez dut igartzen
negua heldu da eta ez nau haizeak hozten.

Udak ez ditu nire ametsak ontzen
udaberriak ez dit taupadarik arintzen.

Bihotza dardara, jauzi, pilpirarik gabe
gudu-zelaiaz lekora nago.

Zer dio, bidaiari, hegazti hark?
Itzul iezadazu haren kantu nahaslea.

“Ilargi berria jaio da, itsasoaren lurrina,
gorputz ederrak bitsez estaliak.

Badoa gizon bat itsaso ondoan
erle milikari zoro bat duelarik ahoan:

Oihal zuriaren azpian gorputzak nahi du
dardaraka hiltzen den beste gorputz hura.

Marinelek amets dagite branketan
neskak kantuan dira txalupetan.

Ontziak itsasoratzen dira eta haien koba argietan
gizonak lur berrietarantz doaz abian.

Emakumeak, ametsetan lo baitago,
eta bere epitafioan bizitzari barre egiten baitio,

emakumea denez, beste gezur bat ere irarri zuen
bere hilobian: asebetea zen".

Ocre, 1925 (*Okrea*, 1925)

VI

Gauza guztien gainetik maite dut nik zeure arima. Ikusten dut zure haragiaren estalkiaz haratago ilunpean distiratzen: inguratu egiten nau, antzaldatu egiten nau, ase egiten nau, sorgindu egiten nau. Orduan mintzatzen naiz existitzen naizela sentitzeko, zeren mintzatuko ez banintz nire mihia herbaldu egingo litzateke, nire bihotzak taupatzeari utziko lioke, ni neu osorik ihartu egingo nintzateke liluraz.

Poemas de amor, 1926 (Amodiozko poemak, 1926)

NI ITSAS HONDOAN

Itsas hondoan
kristalezko etxe bat dago.

Madreporen etorbide
batera ematen du.

Urrezko arrain handi bat
bostetan
agurtzera etortzen zait.

Koralezko
lore sorta gorri bat
ekartzen dit.

Itsasoa baino
ohe urdinxeago batean
lo egiten dut.

Olagarro bat
keinuka ari zait
kristalaren atzetik.

Inguratzen nauen
baso berdean
-din-don… din-dan-
nakar itsas koloreko
sirenak
kulunkan eta kantuan
ari dira.

Eta nire buru gainean
sutan dira, ilunabarrean,
itsasoaren erpin laztuak.

Mundo de siete pozos, 1934 (Zazpi putzuko mundua, 1934)

LOTARA NOA

Lorezko haginak, ihintzezko kofia
belarrezko eskuak, zuk, inude fin horrek,
aton iezazkidazu lurrezko izarak
eta goroldio jorratuzko edredoia.

Lotara noa, inude nirea, eratzan nazazu.
Jar iezadazu argiontzi bat oheburuan;
konstelazio bat; gogoko duzuna;
denak dira onak; jaits ezazu apur bat.

Laga nazazu bakarrik: kimuak ernetzen dantzuzu…
zerutar oin batek goitik kulunkatzen zaitu
eta txori batek neurri batzuk jotzen dizkizu

ahantz dezazun… Eskerrik asko. Ai, enkargu bat:
deitzen badu telefonoz berriro,
esaiozu ez ekiteko, alde egin dudala…

SEBASTIAN GARTZIA TRUJILLO

Agustin Kardaberaz, bizkaieraz ere idatzi zuen gipuzkoar idazlea

Oso gutxitan gertatu da euskalkiz gipuzkoarra den idazle batek bizkaieraz idatzi izana. Alderantzizkoa, ostera, hots: bizkaitar idazleek gipuzkeraz idaztea gehiagotan suertatu da: Domingo Agirrek, kasu, *Garoa* eta sermoi mordo bat ere (bizkaierazkoak baino askoz ugariagoak) idatzi zituen edota Resurreccion Mª Azkuek *Ardi Galdua* eleberria gipuzkera osotuan idatzi zuen. Antzeko ildotik ibili ziren Andima Ibinagabeitia eta Jokin Zaitegi ere. Salbuespenik ez duen erregelarik ez dagoenez, Gipuzkoako idazle batzuek bizkaieraz idatzi (itzuli?) zuten zenbait testu: Agustin Kardaberazek, kasu, edota *Tormes-ko itsu-mutilla* bizkaieratu zuen Nikolas Ormaetxea 'Orixe'k. Baina askoz gutxiagotan[1].

Manuel Larramendiren geriza luzea. Amahizkuntzaz beste euskalkietan zerbait idatzi zutenen artean Kardaberaz, Orixe, Ibinagabeitia, Zaitegi… izenak aipatzea ez zaigu ziorik gabekoa, idazle horiek guztiak jesuiten eskolakoak baitziren, zeintzuen artean betidanik guztiz presente eta indarrean iraun duen Manuel Larramendi handiaren eraginak.

Izan ere, Euskal Herriko hegoaldeko euskal prosa landuaren bultzatzailea izan zen Larramendi andoaindarrak euskalkiei buruzko teoria bitxiak defenditu zituen, zeintzuei hitzez hitz jarraitu zieten bere ikasleak izandako Agustin Kardaberaz eta Sebastian Mendiburu Gipuzkoakoek, baita Agustin Basterrechea Bizkaikoak eta Juan Bautista Gamiz arabarrak ere, denok jesuitak (erakargarria izan omen zen irakasle andoindarra, bai ahoz, bai gorpuzkeraz, bai jakinduriaz ere).

Larramendiren ustez, euskalki guztiak Babelen sortutako ama-hizkuntzak dira (munduko historia osoan, soilik 72 hizkuntzak lortu omen duten pribilegioa), Jainkoaren ahotik beretik sortuak, alegia; perfektuak, beraz; kosta ala kosta defendagarriak, noiznahi eta nonahi erabilgarriak, elkarren arteko

osagarriak: "*Ahora se conoce la admirable variedad con que pueden hablar y escribir los que quisieren usar el Bascuence assi en prosa como en verso, en todos los dialectos, de la manera y con la misma libertad que los autores griegos usaban de su lengua griega en todos sus dialectos, según les parecía convenir, o para evitar la repetición enojosa, o para la suavidad de la expresión o para la magestad y lleno de la cláusula, o para hacer en verso numerosa la cadencia. Esta libertad de hablar y escribir en todos los dialectos es la que yo quisiera introducir en todos los Bascongados, de manera que el Guipuzcoano hablasse el Bascuence y le escribiesse en su dialecto, que fuesse siemrpe el dominante, pero se valiese también de los demás dialectos según la oportunidad de las circunstancias. Lo mismo digo del Vizcaíno, que usando de su dialecto como dominante en todos sus discursos y escritos, se valga de otros dialectos; y lo mismo es del Navarro, Alavés y Labortano. En los lugares rayanos se practica en parte esta libertad, y es razón que se extienda a los demás. Desta suerte hará mil excessos el Bascuence al Griego y otras lenguas en su riqueza y variedad admirable. Sólo falta que los Bascongados hagan más aprecio de su lengua, y se dediquen a estudiar sus primores singulares*"[2].

Abiapuntu horien arabera, bizkaieraren lurraldean euskaldunok bizkaieraz egin behar dugu (nor ausartuko da Jainkoaren hizkuntza-dohainak bertan behera galtzen uztera?), behar izanez gero, beste euskalkien hitzez osatuz, harik eta halako 'coiné' bat sorrarazi arte, "*a fin de que todas se generalicen en todo el país*", antzinako greziarrek egin zutenaren antzera.

Aita Agustin Kardaberazen Bilboko loturak. Agustin Kardaberaz Gipuzkoako Hernanin jaio zen 1703an, etxe handi batean (aita Hernaniko alkate izan zen 1708an, baita 1713etik 1714ra bitartean Donostiako apaiztegiko eta Udaletxeko eskribau eta hiri bereko artxibozain ere). Agustin gazteak gramatika Donostian, filosofia Iruñean eta legeak Valladoliden ikasi zituen, non eta, 17 urte zituela, jesuiten nobiziotegian sartu zen, Valladolideko Villagarcia de Camposen. Teologia Valladolideko San Ambrosio-ikastetxean ikasi zuen (1726tik 1730era bitartean), non irakasle Aita Larramendi izan zuen, zeinek urte haietan *De la antigüedad y universalidad del Bascuence en España: Demostración previa al Arte, que se dará a luz en eta lengua* (1728) eta *El imposible Vencido. Arte de la Lengua Bascongada* (1729) argitaratu zituen. Erraza da pentsatzea, beraz, Kardaberazek hurbiletik ezagutu zuela euskal hizkuntzarako hain erabakigarriak izango ziren liburu horien mamia, baita, behin baino gehiagotan Aita Larramendirekin haietaz berba egin edota eztabaidatuko zuela[3]. Agustin Kardaberaz 1730ean abadetu zen eta Aita probintzialak Bilbora bidali zuen, alde zaharrean jesuitek zuten ikastetxean Gramatika irakasle, non lau urte osoak egin zituen (1731-1734).

Kardaberazek, Larramendiren teologia eta hizkuntza-irakatsiak berri-berriak zituela, sermoiak eta gogo-jardunak euskaraz egiten zituen eta, Bizkaian zegoenez, bizkaiera ikasi zuen bizkaieraz egiteko. Bilbon eman zuen "*lehen udan misio bat eman zuen gaztelaniaz eta hiru euskaraz. Sermoi solteak Artziniegan, Bilbon, Donostian, Hernani eta Bilboko Begoñan. Urte horretantxe fama handikoa gertatu zen Lekeition eman zuen misioa, non orduan Jesusen lagundiak kolegio txiki bat baitzuen herriko parrokiaren ondoan. Gorpuzti egunaren zortzigarren eguneko sermoia sona handikoa izan zen Bilbon eta oihartzunak luzaroan entzun dira toki askotan. Mila zazpiehun eta hogeita hamahirua izan zen. Egun horretan aita Kardaberaz bestetan baino goi-argi biziagoz igo zen pulpitora eta San Anton elizan egin zuen predikua Jesusen Bihotzari buruz, Bilboko*

Udala bertan zela; Espainia guztian lehenbiziko aldiz egiten zena izen zen"[4].

Bizkaia bihotzean. Agustin Kardaberaz, osasun onik ez zuenez ("*barne bakardade eta ilunaldi izugarriak*" pairatu omen zituen), bizitzaren zati handi bat Loiolan eman zuen 1736tik 1738ra eta 1741etik 1766ra bitartean, alegia, konfesioak entzuten eta misioak zein Gogojardunak ematen (gaur egungo Loiolako Gogarte Etxea deritzanaren sortzaile bera izan zen). 1739-1741 bitartean, Aita Kardaberaz, euskalkiari begira bizkaieraren barruan zegoen Oñatin bizi izan zen, Moraleko kasuen irakasle.

Sermoiak egin edota misioak zein Gogo-jardunak ematerakoan, Agustin Kardaberazek joera izan zuen bizkaieraz egiten zuten herrietara joateko: "*El P. Cardaberaz fue un guipuzcoano proyectado hacia Vizcaya. Este otro hermano (Mendiburu) es un guipuzcoano proyectado hacia Navarra*"[5]. Aita Kardaberazek misioak eman zituen Bergaran, Elgetan, Elgoibarren, Elorrion, Oñatin, Eibarren, Mungian, Erandion, Munitibarren, Tolosan, Pasaian, Zaldibian, Zornotzan, Getarian, Berrizen, Lizartzan, Markinan, Lezon, Ataunen, Abaltzisketan… 100 misio baino gehiago! zeintzuek lan eskerga eskatu zioten bai teologia edo pastoraltza aldetik, bai euskararen aldetik ere: "*Misioetara irtetzeak ematen didan poza bezain handia da hartu behar izan dudan lana trebatzeko euskaraz itzultzen eta apaintzen hogei orrialde baino gehiago, eta hori erdia baino pixka bat gehiago baizik ez da*"[6].

Bizkaierarako aldirik onena? Larramendiren jarraitzaileetan nabarmenduak izan ziren Sebastian Mendiburu, 'euskal Zizeron'a zeritzona eta 'inozente' egunean sortutako "escrito nato" eta "santu bezala kontsideratua zen" Agustin Kardaberaz[7]. Bien arteko euskalkien banaketan ez dirudi Bizkaikooi alderik txarrena tokatu zitzaigunik, ez gaiari dagokionez (Mendiburu dantzei begira, esateko, askoz integristagoa izan zen Kardaberaz baino), ezta euskararen nolakotasunari begira ere. Alderantziz omen.

Mendibururen euskaraz aritzerakoan honela idatzi zuen Koldo Mitxelenak: "*Gaiak erabiltzeko moduaz kanpora, geza iruditzen zitzaidan (Mendiburu); garbia, txukuna, bai, baina beti-batekoa. Motela, are gogaikarria. Hiztegi aldetik, nolazpait esan, urria, hitz hautatuak baizik, ahal izanez gero, erabiltzen ez zituena. Zesa-ren gisa. Nahiago nuen, ugariago delako Kardaberazek dakarren lohia eta zarpailkeria*".

Euskararen kontrako Espainiako Gobernuaren betidaniko oztopoak. Norbaitek uste badu euskararen kontrako Espainiako Gobernuaren oztopoak Frankorekin hasi zirela, oker dago guztiz (nahita ote?). Agustin Kardaberazek larrutik nozitu zituen euskararen kontrako erasoak 1766an! noiz eta Espainiako Gobernuak –Arandako Kondea buru zelarik– uko egin zion San Inazioren bizitza argitaratzeko baimena: "*No se dan licencias por este Consejo real para imprimir libros en en otra lengua que la castellana, archivándose la obra original de la obra de San Ignacio escrita en vascuence*". "*Oraindik espetxean daude inprimatzaile batzuk*" idatzi zion Kardaberazi iloba batek.

Handik bi urtera, Espainiako Gobernuak debekatu zuen lehen mailako eskoletan euskararen irakaskuntza (Karlos III.aren Errege-Zedula) eta… horrela gabiltza euskaldunok gaur arte oztopo lasterketa batean: 1772an kontabilitate-liburuetan euskararen kontrako debekua; 1801ean, gazteleraz landako abesti, antzerki eta dantzen kontrako debekua; 1803an, eskolan euskaraz egiteagatik zigorrak; 1857an, hezkuntza soilik gaztelaniaz egiteko agindua; 1862an, euskara debekatua herri-idazki guztietan; 1867an, jendaurreko euskarazko antzerki-antzezpenen debekua; 1902an, euskaraz irakasten duten irakasleen kontrako zigorra; 1937an, kalean euskaraz egitearen kontrako dekretua; 1938an,

erregistro ofizialetan euskara debekatua, baita 1940an auzitegietan eta komertzio-ekintzean ere, 2013ko LOMCEraino, zeinean eskoletan euskara ikasteko murgiltze-programak debekatzen zaizkigun, gaztelanian aldi oro eta nahitaez, murgilduta bizi behar garenoi[8].

Bi aldiz saiatu dira espresuki bezain sutsuki jesuitak euskara suspertzen eta biotan Espainiako Gobernuak errotik moztu egin du jesuiten ahalegina… nola, eta beste 'arrazoi' batzuen artean, baina batez ere irakaskuntzan sartu nahi zituzten berritasunengatik, Espainiatik kanporatuz, 1767an, noiz Aita Kardaberazek Azpeitiatik Genoara alde egin behar izan zuen, non hil zen 1770eko urriaren 18an, eta 1932n, euskara landuaren aldeko jesuiten Loiola eta Oñako Orixek, Ibinagabeitiak, Zaitegik, Lauaxetak, Sarobe anaiek… bultzatutako mugimendua suntsituz. Eta entzun behar duguna entzun behar: euskara ez dela, inoiz, pertsegitua izan, esateko[9].

Kardaberaz, bizkaierazko idazle. Aita Villasanteren arabera, A. Kardaberazek, Astete kateximaren bizkaierazko itzulpenaz gain, *Jesus, Maria ta Joseren devociñoko Libruchorik ataratico devociño Batzuk* liburua ere bizkaieraz idatzi eta Iruñean argitaratu zuen 1763an. Uste dut Villasante esandako horretan egia-erdi bi daudela. *Jesus, Maria ta Joseren*… bizkaierazko testua 1764. urtean argitaratua izan zen Iruñeko Antonio Castillaren etxean[10]. 1763. urtean argitaratutako A. Kardaberazen liburua *Jesus, Maria ta Joseren devocioa, edo iru persona divino oien egiazco amorioa* izan zen, gipuzkeraz idatzi eta Iruñeko Martin Josef Radaren etxean inprimatua izan zena (kopia digitalizatua Euskaltzaindian) eta behin eta askotan berrargitaratu izan dena[11]. Badirudi, beraz, bizkaierazko bertsioa gipuzkeraz idatzitako liburuaren itzulpena besterik ez dela. Bestalde Kardaberazek berak, zentsura gainditzeko asmoz-edo, aitortzen digu gipuzkeraz idatzitako liburu hori "*itzulpena edo ia itzulpena dela gazteleraz idatzitako pietate liburu askorena, Ribadeneira, Cornelio de Lápide, Viera, Suarez… susmo txarrik gabeko abadeek idatzitakoa*k". Bizkaierazkoa beraz, itzulpenen itzulpena.

1763ko gipuzkerazko bertsioa	1764ko bizkaierazko bertsioa
Gauza jaquiña da edo Christau-ac bearduen Dotrina erraza, Jesu-Cristoren, Ama Virgiña, edo Santuen eguiazco Devocioa Errezo luce, Novena, ta beste orrelaco oracio-etan ez dagoela. Certan dago, bada, edo cer da orien Devocioa? Eguiazko Devocioa da gure Religio santu-aren egercicio, edo actu bat, gure biotz, edo arima Jaungoico aren vorondate, ta gustoco gaucetara, gogo bizi batequin daramana: eta gogo santu au iru gauza oietan dago, ta eraskutenda	Emen iaquin bear dozun Dotrina erraza da, Jesvs, Maria, Joseren, da Santuen Devociñoa Errezo luceetan eztagoala. Cetan bada, edo orreen Devociñoa cer da? Eguiazco Devociñoa da gure Religio santuco egercicio, actu, edo obra on bat, gueure biotz, edo arima Jaincoaren vorodate, edo gustoco gaucetara gogo bici santu bategaz daroana: eta gogo au iru gauza oneetan dago, ta eracustenda.

Gipuzkerazko testuaren lehentasuna oinarritzen zaigu ez soilik testu bion argitalpenaren urtean (1763 vs. 1764; nolanahi ere, urte baten diferentzia, etxe diferenteetan argitaratuak gainera, baliteke ez izatea datu erabakigarria). Horrez gain, gipuzkerazko testua luzeagoa eta txukunagoa aurkezten zaigu, bizkaierazko testua baino, zeinak lehengoaren laburpen soila dela ematen duen. Usteak erdi ustel, beraz… Bada baliteke ezetz, zeren bizkaierazko testuan agertzen baitzaizkigu hiruzpalau testu gipuzkerazko testuan agertzen ez direnak: Irakurle bizcaitarrari (Fol. 3-10), Jesusen biotz Sagraduari Novena (Fol. 109-124), Aita San Ignacioren Bederatciurrena (Fol. 145-160) eta Aita San Francisco Xavierren Bederatciurrena (Fol. 160-175), zeintzuek oinarri ematen diguten pentsatzeko A. Kardaberazek horrako testuok gutxienez, hasiera-hasieratik, bizkaieraz idatzi zituela, horren kontrako frogarik aurkitu arte, behinik behin (Ribadeneira eta abarren gaztelaniazko testuetatik itzuliak?).

Dena dela, itzulpenak itzulpen zein testu jatorrak testu jator, doakiola A. Kardeberazi, *Idatz & Mintz* orrialdeotatik, bizkaitarron esker ona, bizkaierarako erakutsi zigun abegi ona eta maitasunagatik[12]… ez da egunoroko aurkikuntza gipuzkoar idazle batek bizkaieraz idaztea (itzultzea)… eta ez soilik hitz-lauz, hitz neurtuz ere.

OHARRAK

[1] Bizkaieraz beste euskalkietan idazteko bizkaieradunen joeraren lekuko, Federico Krutwig, Luis Villasante edota Gabriel Aresti ez nolanahiko idazleak ditugu, zeintzuek lapurteraz idatzi zituzten testu ez gutxi. Bizkaikook irekiagoak garelako? Euskal Herriko mutur batean bizi garelako? ala ohiko bizkaitarren harrotasuna euskaraz beste hainbat gauzatan jartzen dugulako. Gauza guztiongatik ote?.VILLASANTE, L., *Historia de la literatura vasca*, Aranzazu, 1979, 149. or.: "(El P. Cardaveraz) dice (*Eusqueraren Berri Onac* liburutxoan) que muchos vizcainos prefieren que se les predique en guipuzcoano y que muchos predicadores vizcainos se acostumbran a predicar en guipuzcoano".

[2] *Diccionario Trilingüe*, Prólogo, segunda parte, cap. XXVI, 160. or.

[3] MITXELENA, K., "Mendiburu eta Larramendi", *Euskera* XXVIII (2. aldia), 1983-1, 19.23. or.: "Lehendabiziko biek (Mendiburuk eta Kardaberazek) izan zituzten Larramendirekin errietaldi aski larriak, baita hizkuntzari dagokion aldetik ere. Maisu eta gidari izan zuten beti, halaz guztiz, hizkuntzaren arloan bestetan baino gehiago". Larramendiren eta Kardaberazen arteko eztabaida horietaz, ikus TELLETXEA IDIGORAS, J. A., "Larramendi y Cardaberaz. Censura y réplica sobre un libro de piedad", ASJU, 2, 1968, 3-31. or.: "Larramendi, mente más racionalista y menos piadosa que al de Cardaveraz, exige sin consideración rigor en las palabras, seriedad en las afirmaciones históricas y teológicas, y con un estilo desenvuelto deja caer una y otra vez juicios severos y ásperos sobre su discípulo y admirador: Mal dicho, es falso, devociones mal fundadas, etc." Kardaberaz, haatik, erantzuteko orduan, ez zen kikildu: "No están mal fundadas"..

[4] ALTUNA, F., "Aita Kardaberaz Elorriagaren bizitza", *Euskera*, 2003, 48, 61. or.

[5] VILLASANTE, L., *Historia de la literatura vasca*, Aranzazu, 1979, 150. or. Horrelako misioetan ibili zelarik, Kardaberazek *Refranes y sentencias de 1596* eskuratu zuen. Larramendiri pasatu ziona, zeinak *Diccionario Trilingüe*rako prestatu zuen eranskinean hitz berri batzuk sartu zituen. "Del cotejo de palabras y refranes contenidos en este suplemento con el texto del único ejempar de *Refranes y Sentencias*, parece deducirse además que el ejemplar que manejó Larramendi

constaba de más páginas que las que tiene el único ejemplar de esta obra, actualmente conocido" (VILLANSATE, L., o. c., 142. or.)

[6]ALTUNA, F., Agustin Karaberaz Elorriagaren bizitza", o. c., 61. or.

[7] *Ibidem* 61. or. eta Villasante, L., o. c., 146. or. Larramendi eta Mendiburu (baita Kardaberaz ere) soilik 1745-46an elkarrekin bizi izan ziren Loiolan. Larramendi eta Kardaberaz, haatik, urte luzeean elkarrekin bizi izan ziren Loiolan, non Kardaberazek Larramendi ongi hiltzen lagundu zuen 1766an. Larramendik, haatik, Mitxelenaren geroko iritziaren kontra, Mendiburuen euskaren hobetsi zuen Kardaberasena baino: "Su bascuence guipuzcoano mezclado con navarro es tan bueno que el P. Larramendi le escribió en el mismo idioma un carta… toda llena de entusiasmo y complacencia al ver explicados con tanta pureza, propiedad y elegancia los asuntos de nuestra santa Religión" (P. Zabala).

[8] Ikus "Leña al vascuence", *Diario de Noticias*, 10/12/13, 14. or.

[9] VILLASANTE, L., *Historia de la literatura vasca,* o. c., 145. or.: "De no haber ocurrido la expulsión y más tarde la supresión de la Compañía, es de creer que otros hubieran continuado la labor comenzada por éstos".

[10] Ikus Agustin Kardaberazen *Euskal lan guztiak*, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1974, 53. orrialdeko faksimila.

[11] VINSON. J., *Essai d'une bibliographie de la langue basque*, Paris, 1891, 218-219. or.

[12] VILLASANTE, L., o. c., 149. or.: . "En más de veinte años A. Kardaberaz ha dado misiones en estas dos privincias (Bizkaia eta Gipuzkoa), y siempre se ha admirado de la disposición maravillosa de estos dos dialectos y de cuán bien conservan sus reglas los que los hablan".

Jesu Kristoren Ebanjelioa

Testamentu Barriaren itzulpen barria bizkai euskeraz

Aurten, 2015 honetan, agertu da argitaraturik Testamentu Barriko lau ebanjelioen euskal bertsino barri bat, bizkaieraz ondua, izenburu honegaz: *Jesu Kristoren Ebanjelioa*, *JKE* laburduraz. Argitaratzaile, Bilboko Gotzaindegia agiri da eta bizkaierazko testuaren atontzaile, Juan Luis Goikoetxea eta Lontzo Zugazaga.

Hitzaurrean ohartarazoten jaku, Bizkaiko abade eta eleiztarrek Gotzaindegiari aurretiaz eginiko eskari bati erantzunez ondua dala bizkaierazko bertsino hau. Eskaria hau zan: "Ebanjelioak behar doguz bizkaiera gaurkotuan". "Bizkaiera gaurkotua" horregaz gaur euskeraz darabilgun grafia estandarra eta bizkaiera idatziaren morfologia esan gura dala pentsau lei.

Bertsino honen idazkera ikusita, grafia gaurkotua zaindu da, bai. Bizkaieraren morfologiari eta lexikoari jagokenez, ostera, itzultzaileek euren kabuzkoa erabili gurago izan dabe; ez behintzat, gaur egun bizkaiera modernoan finkatu dan eredua. Aurrerago natorke horretara.

Bizkaiera gaurkotua eskatze horrek baeukan bere arrazoia. Ze Ebanjelioaren eta Bibliaren (osoaren zein parte baten) bizkaierazko aurretiko bertsino ezagunak /h/ bakoak eta /ñ/, /ll/ bustiduradunak ziran. Bertsino honek aurretiko hurrena, Elizbarruti-arteko Liturgi-euskeratzaile Taldearen *Erromako*

Meza Liburua. *Irakurgaiak* (*ML-I*) dalakoan eukan. Euskal eleizbarruti guztien artean ondutako euskerazko testu bakarra (1978) eta haren gaineko bizkaierazko bertsinoa (1988). Urruntxuagoko aurreti-

koa, Kerexetaren 1976koa, Jaime Kerexetak ondurikoa: *Euskal-Biblia (bizkaieraz)*, *EBb* laburduraz. Honek (') goi-zeinua be badarabil: izen propioakaz (*Mateo'k, Jesukristo'ren, David'en*), baldintzazko adizkiakaz (*ba'dautso*), gidoi laburra be ohi baino ugariago (*Eufrates-ibairagiño*).

Liturgiako liburu "ofizialen" eredutik urrats bat aurrerago emona jokabide zuhurra izan da, gaur egungo gizarteari begira. Gure eleizeak bere eleiz liburuetan lehenago emon baleu be, eskertuko zala pentsetan dot.

Liburuaren kanpo ezaugarriak

Liburuaren luze-zabal neurria, ez handia, ez txikia; erdi tamainukoa. Agustin Apaolaza beneditarrak onduriko *Jesukristoren Berriona* (*JBO*) (1994) baino txikixeagoa. Azal bigunaz argitaratu da, ez gaur sarriago ohi dan gogorraz; baina azal sendoa, nonbaiten be, ze edegiten dan orrian edegiten dala, ez da edegirik geratuko, beherantz begira ipinten ez bada behintzat. *Elizen arteko Biblia*-ren (*EaB*) (1994) kolore antzekoa, berde iluna.

Tipografia be, Estibalizko beneditarraren *JB*-ren neurri beretsukoa, Biblia liburuek ohi daben baino handiagoa, *Biblia de Jerusalem* (*BJ*) edo Kerexetaren *EBb* liburu mardulen letra txipiaren aldean. Irakurrieran begiak gitxiago nekatzekoa. Papera be ohi baino lodiagoa. Liburuaren edukia neurriz laburragoa izateak onura hori dakar. Testuak lau ebanjelioak bakarrik hartzen dituanez, liburu eskuorra eta arina da, besapean eroateko be; 417 orrialde.

Baina kanpo ezaugarriok albora itxira, argitaraldiak baditu bestelako muga batzuk, ez *EaB*-k ez *EBb*-k ez dituenak. Biblia, eta Testamentu Barria bardin, liburuka, kapituluka eta bertsikuloka antolatua dago. Halan kontsultatu eta halan zitatu ohi da. Horregaitik batez be, bertsino ia guztiek daukie gaur egun testuko orri guztietan eta bakotxaren buruan zein libururi dagokion, zein kapituluri eta kapitulu bakotxaren zein bertsikulu hartzen dituan orrialde bakotxak. Ebanjelioaren kasuan, *Mt* (Mateo), *Mk* (Markos), *Lk* (Lukas) edo *Jn* (Joan). Adibidez *Jn 3,27-36*. *JKE* honetan ez dago halakorik. Liburuak hasieran dauen *Aurkibidea* dalakora edota zabalik daukagun orrialdeko kapitulu zenbakiaren lehenengora jo beharko dogu, non gagozan jakiteko. Edizinoaren egileek ardura handiagoa hartu deutse, zeinen ebanjelioa dan erakusteari baino, guztia *Ebanjelioa* dalako mezuari.

Oin-oharrik be ez daroa bertsino honek. Kerexetarenak, *Biblia de Jerusalem* gaztelaniazkoaren oharrak euskeratuta ekarzan, eta *Elizen arteko Biblia* (EaB) be oharrez ondo hornidua etorren; ez, ostera, honen aurretikoa dan *Itun Berria* (*IB*) /1980). Olariagaren *Itun Berria*-k (1978) baekarzan, ostera.

Apaolazaren *JBO*-k oin-oharrik ez darabil, baina ordainez sarrera eta azpisarrera ugariak erantsi deutsoz liburuari hor-hemen, kapilutu hasieretan eta kapitulu barruetan be sarri. Ebanjelio bakotxaren aurreko *Sarrera*, luzetxoa eta argia, beti be. Bide batez esateko, bertsino gitxik lako meritua dauka A. Apaolaza beneditarraren honek.

Gatozan atzera *JKE* honetara. *Hitzaurrea* batuz idatzirik ikusteak be zurtu gaitu. Ez da ohikoa gaur, liburu baten barruan liburuaren edukia erregistro bitan egotea. *JKE* honetan, ebanjelioen testua bizkaieraz dator eta *Hitzaurrea,* batuaz. Egia da aldi zaharreko liburuetan jazoten zala "elebitasun" antzeko bat. Mogelek *Peru Abarka* liburuari *prologoa*, atzeko *nomenclatura* eta dialogoen izenburuak gaztelaniaz ipini eutsezan, eta berba-jardunetako testua bakarrik euskeraz. Gaztelaniazko bertsinoa eskolatuarentzat eta euskerazkoa eskolarientzat edo irakurle zeheentzat. Ez dakit hemen be holakoren bat jazoten ez ete dan.

Bertsinoaren iturriak

Hitzaurrean autortzen dabe itzultzaileek, *EaB* eta *ML-I* izan dirala, testua atontzeko orduan, eredutzat hautu dituen iturriko testuak, jatorrizko grekozkoa be aurrean dabela. Lehenagoko bertsinoei, bizkaierazkoei esan gura da, uko egin deutsela dirudi. Egia esan, bide segurua hartu dabe. Baina egia da, bestetik, bizkaiereak, eta euskereak orohar, bereak dituan esamodu, hitz eta estilo baliabide egokiak iturri klasikoetan be bazirala. Uriarteren *San Mateo*ren bertsinoa edo gipuzkerazko Biblia osoarena, bat esatearren. Eta Añibarroren *Lau Ebanjelioak batera alkarturik*, *Ebanjelio alkartuak* ohi deritxegunak (*EbAlk*).

Aitaturiko iturri testu biok eta grekozko osagarria erabili izanak bertsino honi, mezuaren zehaztasunaren aldetik, berme zindoa emoten deutso. *EaB*-k, jatorrizko testuen itzulpen zuzenak izateak eskeintzen daben ziurtasunagaitik. *Meza Liburua* eta horretako *Irakurgaiak* be bai, estilo jatorraren aldetik. Berak autorturik dakigu, honen bizkaierazko bertsinoa, Karmelo Etxenagusia gotzain idazlearen galbahetik iragazia da hitzez hitz. Berberak jo ei eban makinaz azken bertsinoa, inprimategira aurretik, letraz letra. Etxenagusia, idatzizko testua berbazko jarioaren senera ekarten maisua zana jakina da.

Iturri-testu bion arteko alderik handiena hizkeran dago, bata batuaz eta bestea bizkaieraz idatziak egotean. *EaB*-ko hizkera, batuaren itxurapean ere, erdialdeko erregistrora obendua da igarri-igarrian, beharbada aurretiaz jakinik lapurterazko eta bizkaierazko bertsino idatziak etorriko zirala atzetik. Lapurterazkoa, Biblia osoaren itzulpena, Marcel Etcheandy-k neke eta lor handiz ondurik agertu zan orain urte batzuk (2008). Biblia osoaren bizkaierazko bertsino barririk ez daukagu Kerexetarenaz gero. Ezta Testamentu Barri osoarenik be. Lau ebangelioen bertsino hau da daukagun barri bakarra.

Itzultzaileek iturri-testu biak aurrean dirala ondu dabe eurena, batean batari men eginez, bestean besteari edota eurek beregango bidea hartuaz.

Estilo eta sintaxi kontuak

Hitzak eta esaldiak ordenetako moduak be estilo joera bat erakusten dau. Eta ordena kontuan Altuberen zorroztasunetik hurrago dakusku bertsino hau, tradizinoaren malgutasunetik baino. Adibide bat edo beste.

Zein lurraldetako zein herritan esateko, Jesusen jaiotzea, kasurako, joera sintaktiko bi dira euskeraz. Bata, klasikoa, Leizarragak, Duvoisinek eta Uriartek, lapurteraz edo bizkaieraz darabilena: *Bethlehem Judeakoan* (Lz.), *Bethlehem Judakoan* (Dv.), *Belen Judakuan* (Ur.), non garrantzia emoten jakon jaioterriari, herri hori datzan lurraldearen aurretik. Antzeko egituraz, *Done Peri Deustuko* esaten zan lehenago, gaur *Deustuko San Pedro* danari, edo *Andra Mari Begoñako*, gaur *Begoñako Andra Mari* danari, edo *Birjina Arantzazukoa*, gaur *Arantzazuko Ama Birjina* danari. Sintaxi klasiko horren aurrez aur, joera modernoa beste hau da: *Judako Belenen* (Añ., Ker.), *Judeako Belen herrian* (*EaB*) edo bertsino honen: *Judako Betleemen* (*JKE*). Biak, zilegi eta zuzenak, jakina.

Judeako errege Herodesen egunetan, bazan Zakarias izeneko abade bat, Abiaren abade-sailekoa (Lk 1,5) hasten da Joan bateatzailearen jaiotzaren iragarle dan paragrafoa. Sintaxi bildua. Apaolazarena bateratsu dator. Baina bada beste ordena bat, klasikoa dana, Añibarrorena, galdegaia aditz ostean dauela, baina ulertzen erosoa: *Herodes Judeako erregearen egunetan egoan Zakarias eritxon sazerdote bat, Abiasen familiakoa*. Kerexetarena be ez dabil urrun; ulergarria eta ondo taiutua: *Erodes*

Judea'ko erregearen egunetan, Abia'ren taldeko abade bat zan, Zakarias izenekoa. Euskal hitz ordenaren auzia zaharra da. Biak dira legezkoak. Untzea beste honetan datza: testua berbaz norbaitek esateko eta jenteak entzuteko danean, zein dan komeni dana. Ni bigarren bidera obentzen naz gehiago. Honako zerbait: *Herodes Judeako erregearen egunetan bagoegoan sazerdote bat, Zakarias eritxona/izenekoa, Abiaren abade-taldekoa*.

Erlatiboko mende-perpausak erreferentzia-izenaren aurrean ipintea, euskeran ordena era nagusia izan arren, ez da beti hil edo bizikoa. Lege horregaz zorrotzegi jokatu ezkero, komunikabidea galgatu edo ilundu egin daiteke. Ondoko esaldian, sortaldeko errege magoak sein jaiobarriaren preguntaz hasten diranean (Mt 2,2), *JKE*-n honetara itaun egiten dabe: *Non da jaiobarria dan judeguen erregea?* Añibarrok be antzera: *Non da jaio dan Judeguen Erregea?* (*EbAlk*). Gure eretxian belarrientzat entzungarriago dira beste era biok: *Nun dago judarren errege jaiobarria?* (*EBb*) edo: *Non da juduen errege jaioberria?* (*EaB*).

"Hiztun euskaldunen ulermena" aitatzen da hitzaurrean. Ezinbesteko baldintza, irakurteko baino gehiago entzuteko atontzen diran idatzietan, eta ebanjelioen kasuan. Hitz-ordena artezegia, atzekoz aurrerako eraikuntzazkoa ohi da ulerpide ilunaren errudun.

Bizkaiera eredua

Hitzaurreko paragrafo baten hau dinoe: "Euskaltzaindiari jarraitu gatzaizkio hizkuntzaren alderdi testualean, morfosintaktikoan, lexikalean nahiz ortografikoan" (X). Grafia albora itxita, nik dakidala, Euskaltzaindiak gauza gitxi arautu dau testualitateaz edo morfosintaxian, eta gitxiago bizkaieraz zaindu beharreko lexikoaz edo morfologiaz. Euskaltzaindiaren *Lehen Urratsak* gramatika liburukietan tradizino idatziaren araberako ereduak eta hortik ateraten diran gramatika joera zuzenak zertzelatzen dira; baina deskribatzailea da gramatika hori, ez arauemailea.

Hitzaurrean, bizkaiera eredua dala-ta hau dinoe: "Bizkaierarako (…) eliz testuetako tradizioa eta gaur eguneko bizkaiera idatziko jokabideak hartu ditugu kontuan" (X).

Gogor egiten da hori sinestea, "gaur eguneko bizkaiera idatziko jokabideak" zaindu dituela, bertsino horretako bizkaiera moduari ohartuta. Baieztapen horrek balioko eban akaso, Mikel Zaratek *Bilbo irribarrez* idatzi eban aldirako, 1980 aurreko urteetarako, orduan ez eukalako bizkaierak eredu idatzi erreferentziazko bat. Baina harrezkero urek bide luzeak egin ditue. Eredu bila hasi ezkero, Eleizbarrutitik urrun barik, hur euki dabe itzultzaileok eredu bikain bat, gaurko grafian eta morfologian, Karmelo Etxenagusia gotzainaren *Euskerea nire bizitzan* (203) liburua.

Harritzekoa da, 2015ean argitara datorren Ebanjelioen itzulpen honek kontuan hartu ez izana azken hamarrekoetan bizkai euskerea arautze aldera emon diran urrats garrantzitsuak, batez be Labayru Fundazioaren gidaritzapean, baina gure herri administrazinoaren babes eta autormen osoaz. *Bizkai euskeraren jarraibide liburua* eta *Labayru Hiztegia/Diccionario Labayru* bihurtu dira aspalditxotik ezinbesteko erreferentzia, bizkaieraren idatzizko eredua finkatzen. Baina lehenagotik be bazan aurretiko esanguratsu bat. Irakaskuntzan bizkai euskera erabilteko Hezkuntza Sailaren ardurapean egin ziran liburu biak: *Bizkaieraren idatzizko arauak*. *Deklinabidea eta aditza* (1983) eta *Bizkaierazko Joskera* (1989). Gaur egun, bizkai euskerea erabilten dan eremuetan, administrazinoan, irakaskuntzan, hedabideetan, literaturan… eredu hori dabil nagusi, mundu guztiak, salbuespen banakak gorabehera. On-line be hor dago asko irakurten dan aldizkari bat: *Bizkaie*.

Ebanjelioen bertsino honek hartu dauen bidea ez da, ez morfologiaz, ez lexikoz, ez osterantzeko hainbat puntutan, ez bizkaierazko tradizinokoa, ez gaur egungo bizkaiera idatzikoa. Itzultzaileek euren kabuzko bide bat hartu dabe: bizkaiera eta batu ereduen artean zibi-zabuan dabilen nahasteko eredu bat; eredu bien nahastura izan gurako bat. Peru Landetakori uragaz eta ardaoagaz jazoten jakon berbera egiten jaku guri be eredu horregaz. Peruk dinotso Maisu Juani: "Niri ur-ardauak egingo leusket sabeleko mina. Nik biti bat: edo ardao utsa edo geijenian ur utsa". Baina zelan aitatzen daben be "eliz testuetako tradizioa", garbi esan daigun, Biblia edo Testamentu barriaren bizkaierazko bertsinoak egin izan dituenen morfologia ereduari uko egin deutsela bete-betean: Añibarro, Uriarte, edo oraintsuagoko Kerexeta eta *Meza liburua*. *Irakurgaiak* testuetako morfologia eta lexiko bideak ez ditue aintzat hartu; bizkaieraren tradizino idatzia bera, azken baten.

Morfologia puntu batzuekaz iruzkinduko dot dinodana. Funtsezko legea da *–a* amaierako hitzek *-ea* bihurtzen dirana mugatzaileaz: *berba>berbea, birjina>birjinea*. Eredu batuaren *-a* horri eutsi deutse, sartalde tradizino osoko *-ea* baztertuaz. Halan: *ezkontzeko berba emonda egoan* (Mt 1,18), *birjinak sabelean sortu* (Mt 1,22). Erakuslea eta mugatzailea sintagma berean agiri diran kasuetan, erakusle bi balira lez tratatu ditue: *hori guzti hori* edo *horren guzti horren*, eta ez *hori guztiori, horren guztiorren*. Bokatibo atributiboa danean be, *-ori* mugatzaile hurbila dana *hori* erakusle bihurtu dabe: *Fariseu itsu hori!* (Mt 23,26).

Izen bokatiboak mugagabez markatze hori be moda barrikoa da, euskal telesailetan eta entzuten dana, baina ezetariko sustrai bakoa izen neutroakaz. *Bai, gizona! Ez, gizona! Agur, jauna!* esaten dan moduan, *maisua, gidaria* esatea toketan da, eta ez: *maisu!, gidari!* (Mt 23,8-10) eta halakorik. Añibarrogan eta edozein klasikotan ezetz irakurri *Maisua* baino holako kontestuetan!

Soziatibo kasurako *-rekin* atzizkia bultzatu dau eta *-gaz* bizkaierarena baztertu: *Joserekin* (Mt 1,18), *aitarekin* (Mt 4,21), *Jesusekin* (Mt 17,3), *harekin* (Lk 1,66), *zerekin* (Jn 4,11). Batzuetan *-gaz* be irristau jake horraitino. Pluralean, *-ekin* ez darabilenean, *-ekaz* darabile, tradizinoko *-akaz* barik: *seme-alabekaz* (Lk 1,17). M. Zaratek bere aldian halan erabili izana gaur ez da arrazoi, horri eusten jarraitzeko.

Motibatiboan be *-gatik* irakurri dogu, bizk. *-gaitik* ohi dauen lekuan: *Altareagatik* (Mt 23,20).

Gaurdanik (Lk 1,48), "gaurtik aurrera", ekialdeko egitura da, eta bizkaieraz badauka ordaina: *gaurganik* (edo gurago bada, *gaurgandik*).

Aditz morfologiara etorrita, zer-nori-nork egituran *eutson, deutsozu, deutsodan* erakoak darabilz, Kerexetak Azkueri jarraituz darabilen bide beretsutik, tradizinoko eta bizkaiera arautuko *eutsan, deutsazu* erak bazter lagata. Kerexetagaz batera, gerra aurretik zein gerraostean, Azkuek jarraitzaile asko zain ditu gure artean. Baina behin tradizinoko uherka segurua hautu genduan ezkero, Alfonso Irigoien eta Eusebio Erkiaga euskaltzainek ondo ikusten eben bidetik, zertara jo atzera Azkueren gramatika logikazalera?

Adizki aoristoen zer-nork jokoan be, *(ikusi) dagizun* (Lk 1,4), *(izan ez) dagidan* (Jn 4,15), *emon begio* (Lk 3,11) erakoak baino ez ete zan hobe *daizun, daidan, beio* erakoak erabiltea, askoz zabalago dabilzanak?

Ahalerazkoetan *(jakin) dagiket* (Lk 1,18) orainekо ahalera adizkietara joten dabe, bizkaieraz askoz ezagunagoak diran *nei* edo *neike* albora itxita. *EaB*-k, jakina, *dezaket* eredua darabil beti, gipuzkeraz askoz normalagoa dana.

Aditz trinko batzuk, *dino* erakoak, *ba-* aurrizkiaz markatu ditue sistematikoki, galdegai bihurtu gurarik, benetako galdegaia ondoren datorren konpletiboa dan kasuetan be. Halan: *Eta badinotsuet ez*

nozuela ikusiko, harik eta hau esango dozuen arte (Mt 23,38). Hiztunok, eta tradizino klasikoak be, hor *dinotsuet* esango leuke.

Aditzizenetan, bizk. *-ten* ebaten diranak *–tzen* bihurtu ditue, batu eredura jo gurean: *eregitzen, etortzeko, hiltzen, iragartzen* eta ez *eregiten, etorteko, hilten, iragarten*.

Aditz konposatuaren bidez aspekto burutua edo ekintza bat amaiturik dagoala adierazoteko, ekialdeko hizkeretan *joana da* esaten dana, *joanda dago* esaten dogu sartaldean. Bertsino honetan, *EaB* ereduari men eginda seguruen, ekialdekora joten dabe sarri. EaB: *Ikasleak hirira joanak ziren* (Jn 4,7-8), JKE: *Ikasleak urira joanak ziran*. Ez ete zan gozoago bizkaitarren belarrientzat: *joanda egozan*? Beste adibide bat: *zazpietariko zeinen emazte izango da, ze, danena izana zan* (Mt 22,27). Bizkaieradun batek beste era batera adierazoko leuke hori.

Egitura zalantzazkoak dira beste honetarikoak be: *Babiloniako erbestealdi ostean* (Mt 1,12), *erbestealdiaren ostean* toketan zan, aurretik *Babiloniako* izenlaguna eukirik, Añibarroren bidetik: *Babiloniako erbestearen ondoan*.

Mende perpausetan azertuz jo dabe kausazkoetan, esaterako. *Ze* kausazko aurre-hitzaz baliatzeaz itu-ituan jo dabela esango neuke. Sarritan darabile eta txito egoki. Kausazko egitura batzuk eta euren esangurak testuan ondoen josteko modua sarritan. Halan, *Mariaren kantika*-n: *pozaren pozez daukat neure barrua, ze, Jainkoa da nire salbamena* (Lk 1,47). Ez dakit, ostera, *ze* aurre-marka hori koma barruan zergaitik hesitu daben. Aurrean bai, baina atzean ez leuke ezer eroan behar, sarrera emoten deutsan kausazko perpausa ez bada.

Denporazko mende-perpausan *-larik* atzizkidun adizkiak agiri dira behin baino sarriago, *-la* atzizkia ohi darabilgun lekuan. Halan: *abade-zerbitzua egiten ebilelarik* (Lk 1,8). Bizkaieraz, bai tradizinoan, bai berbaz, *ebilela* esango genduke holakoetan.

Lexiko eredua

Bizkaierazko bertsinoa izanik, agiri diran hitz edo hitz-aldaera askotan be ezagun dau *EaB*-ren testuaganako obendura. Hitz batek bizkaieraz eta batuaz aldaera bereziak dituanean, baturako obentzen da behar dan baino sarriago. Halan: *ametsetan* (Mt 1,20) eta ez *amesetan*, Añibarroz geroko itzultzaile guztiek darabilen lez. Antzeko bidetik, biz. *itxi* eta bat. *utzi* aldaeren artean, tradizino laburreko *itzi* bultzatu dau, arterago Kerexetak egin eban bide beretik, baina tradizinoaren kontra. *Nazioa* darabile, ez *nazinoa*, bizkaierak erderatiko *–ión* guztiak– *ino* egiten dituanean.

Eskuma edo *eskoi* (*eskoe*) bizk. aldaeraren ordez *eskuin* darabil: *nire seme bi honeek jesarri daitezala zure erreinuan bata zure eskuinean eta bestea zure ezkerrean* (JKE) idazten dauena, hara zelan dakarren Añibarrok: *nire seme biok jarri ditezela zeure erreinuan bata zeure eskoatara ta bestea zure ezkerretara*.

Sinonimoak izanik *handinahia* eta *handigurea*, eta bigarren hau askoz sustraituagoa bizkaieraz, *JKE*-k *handinahia* (Mt 20,20) hautatu dau.

Itzulpena, orohar, maila onekoa da. Testua, guztiz baliagarria, irakurteko zein entzuteko. Itzultzaileen ahalegina eta eroapena, eskertzekoak. Aurrera pausu garrantzitsua, euskereak eta euskaldunok, berariaz bizkaitarrok, bizi dogun egoeran. Uxala erabilia, eta asko erabilia bada. Zoriontzekoa, danari begiratuta, kritikak gorabehera. On beharrez eginak dira. Eta bide horretatik dator hurrengo erregu hau. Gerora argitaraldi barririk egin baledi, ahalegintxo bat eskatuko neuskie, ia guztiok darabilgun bizkaiera eredu arautu horretarantz joteko, mofologia alderdian behinik behin. Eta lexiko alderdian beste ahalegintxu bat egin ahal baledi, hainbat hobeto. Osterantzean, lehengo bestean.